

Arratia

ANDIK ETA EMENDIK

Lengo baten, nire urtegunean, neska-til batek ekarritako esku-agiria jaso neban; euskera txukunean idatziriko elebarri bi ta erderantozko bat. Joan nintzan, ba, saletxe-dendara, erderantokoa an itzi ta ordezkotzat beste bat ekarri asmoz.

Emen begiratu, an arakatu ta gogokorik aurkitu ez... itaundu neutsan nagusiari zelan izan zeinkean euskerazkoen urritasuna ta besteen ugaritza. —Ara, ba, asko irabazi ta asko eralgiten dauan gizonaren sakelean bein bere ez da izango diru-pilla andirik; eta gitxi irabazi baiña gitxiago eralgiten dauanaren etxean barriz, moltsoa egunetik egunera aundiago. Orixe berbera jazoten da zuk diñostazun euskerazko ta erderantozkoen artean be.

—Emon egidazu, ba, «Canto a Joxe». Eskerrik-asko ta agur, beste bat arte.

IKASTOLAI BURUZ

Arrasate'ko odei baltzak aize garbia-
ren putz eta indarrez aldendu ondoren,
eta Deustu'ko ur zikiñari urten ez dadin
zuloak itxi; ke-ta-zusko istillu ta tximis-
tak Santutxu'n.

Zer ebillen eta zer jazoko ete da gure ikastoletan? Euskal-arnasaren zale diran gurasoak zurtasunez jokatuten ez ba' dabe, auntz eta akerren berezi biurtuko litzakiguz, eta ez genduke izango zugatz bakar bat bera be txinurriari kerizpe ta babes egiteko al izango litzakenik.

AZKATASUN EGUZKIA

Ia bi milla urte igazi dira Azkatasun Eguzkia Belen'en jaio zanetik. Eta gizona, gizonaren; erria, erriaren, laterria, laterriaren otseintzara ta buztarpera atzo bazen gogor lotuta gaur bere. Gizonaren azkatasun-egarria zornotzarren eleiz-dorreko ordularia baiño zarragoa da, antziña-antziñakoa, berezkoa.

Oraintxe dogu ba, aldirik egokiena, Belen'go Eguzkia'ren itzalpean babesturik eta geidea, lagun urkoa aintzakotzat arturik, adar-turuta jo ta azkatasunari dei egiteko. Azkatasuna, ba, indarraren menpeko dan erriari. Azkatasuna bu-ruan doguzan asmo ta biotzeko taupadak agertzeko. Azkatasuna alkartu ta itz-bidez barruko nai ta gurariak ustuteko. Azkatasuna bakoitzak bere Jauna gurtuteko eta etxaldea al baitik ondoen zainduko dauan gizona aukeratzeko. Azkatasuna gurasoentzat umeen eziketari. Eta azkatasuna etxean eta auzoan, mal-tzurkerizko indarrez eta azerikeriz iñor oinperatu barik bizi al izateko.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

GABON ETA EGUBERRI

Gauari dagokion itza izanik lenen-
goa ta egunari bigarrena, ama baten
umeak biak, aita baten seme-alabak.
Poza, bakea, itxaropena ta ludi obe ba-
ten ardatza, zilla.

Ezkontzaren bidez, ogia irabaztera
naiz beste arazoen bategatik sortetxetik
urrutiratua izan dan gizonak zein ema-
kumeak, etxemiña osatuteko alak eta
bost egiten ditu sendiaren epela aurkitu
guran.

Jai pozgarria bene-benetan izan bea-
rrepoa, gizonaren kirtenkeriz, aundi-
naiez, arrokeriz eta abar, ogeigarren
eunki, gizaldi onetan bere, zenbat etxe
ta biotz ixil-mixil agortu eziñeko negar-
iturri.

Itxaso sakona ta zabala dalako ba-
tzutan, erri ezbarदिनेen arteko mugak
dirala-ta bestetzutan, eta erri bakar
bereziak zatituten dituezan sasi-seda-
rriak doguzalako bere, ez gitxitan, ama
galduriko bildotsa bezela bee ta beee
erantzunik izango ez dauan negarretan.
Laterri aundi ta altsuen maltzurkeriz
odolustuten diarduen erriak bere, emen-
go edo ango, nonbaiten beti guda amo-
rratuan.

Eta zer dirauskue ormarie sendo an-
diz esituta bizi diranak; zearkerizko,
goitik berako ta betik gorako begiraka-
da zorrotza besterik ikusten ez dauan
giltzapetuak? Zer egin ete-dau pizti kal-
tegarriaren taiuz eta itxuran bizi danak?

Gaiztoa dalakoaren oker-egitea non,
zer, zelakoa izan dan aguro ta beingoan
azalduten dauskue, gaitz okerrera zerk
eta nork bultzatu izan dauan barriz...
iñork bez. Geure buruari ziriketaldien
batzuk egiñez azke ta nasai garanok, bat
eta bi baiño geiago, ez ete-gara barruan
egon bearrekoak? Etorriko dan aldiak
izango dau bakoitzarentzat bakoitzaren
erantzuna.

HATXE, HI, HOTA, HA

Zer marxista ta zer Hochi-Mihin dira
«intelektual» eta «progresista» izan naia
agertuz ari diran «anti-euskalerristak»?
Al dabenik apaiñen jantzi; gurasoen biz-
karretik bizi; berebilla ta altzorako eme
aldagarri bat, eta txuntxurreraiño uis-
kiz beteta ibiltea progresoa baldin ba'
dok... guztiontzat obe progreso «hori».
Egunero miñean darabilgun «iraultza»
baiña, nork egin? Eta kupiraz eta erru-
kiz aitatz daroaguzan «laborariakin,
langilleri ta proletalgoakin», zer egin?

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

GABON-JAIK

Areik bai, areik, jai etxekoiak. Lagun zarrak agurtu, zori txarraren atzaparretan diran anai-arrebak gogoratu, gaztedi barria ezagutu... soka-tiran jokatu eta gabon-usaizko sukalde berezian sendiagaz alkartu.

Igandez eta astelenez bazkal-ordua etorri izan zan arte, batera ta bestera ibillian ibilliz taldetxo politean biribildu giñan, soka-tirari asiera emoteko. Izketaren zil eta gurpil-txirrinka eriotzak berak bere oraindiño il ez dauan ARRANOIA izan genduan, gero... Arantzatsu («S»akin), Panchovilla, atzezaleak (hachedunak), sasi-batasuna ta erderantoa.

Bakoitzak norberaren zioak azalduz eta zainduz asarre gogorrik bage, bazkal-ordua etorri yakun, soka-musturra bere lekuan zirkinge, etxerako ordua, amaitu bear zan, eta amaituteko, nire itaun-galderari azken «fin» «terminalean» era ontantxe erantzun Alba adizkideak:

—Hacheak idatziz agertzekoak dira, eta ez oguziz, aoz esateko.

—Sasi-batasunaren oñarri ta lege, ori ba'dok... K. K.-batasuna be urrin ez dok.

Iparreko anai-arrebakaz txolarte astitsu bat izango ba'gendu, eta ango diran itzak «harri», «herri», «zahar», «behera», «mihi» ta «mihahuak» entzun ondoren, hacherik esan bear ez ba'dogu zelan adierazi emengotarron barru-ustute ta artu-emonak? Pot egin dok, adizkide, poto. Emen dok baiña ezta-baida-laguna bostekoa luzetuz. Ez larritu.

* * *

Or abil esanez, aldizkari bat progresistaegia dalako eta bestea geldiegia, batagaz eta ez bestegaz bat ez atorrela. Tirok ba, mutil, tirok. Egin egik gorostizko burzotz edo larakoa, sartu egiok burkamari erdiko zulotik eta... urrengo baten esan zergaitiaren zergaitia.

* * *

Agur, zuri, illoba-ume samurren aititea, etxeko jaun nagusia, Motxogan'dik Orandui'rako bizkarraren magalean bizi zaran betiko adizkide orri.

Asmo txarrez egin ez dozun arren... egin dozu egitekoa, bai. Aitor'en mendi erpiñetako bularzantzoa, oyanetako irrintzi zolia, Erria'ren oiartzun benetakoa, euskerea, etxeko laratzaren ingurutik uxatu izan dozu, erdel egunerokoari toki ta babes emoteko.

Gogoan izan adizkide, gabon-jaiak zirala, izotza ta leia agintari. Nora bialdu zenduan berogarri bat emon gabe, ogi-kuskurra aorako ta argontzia biderako?

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Gorbeatarra, bein, Iurre'ra etorri izan zan baten, arritu, izutu ta zuritu egin zan Urkitze'rako bidea nondik ze-goan itaundu ta, «no le entendemos» erantzun eutsonean.

Orain berrogetakak urte senditarte bi izan ziran erri ontako erdeldunak, Joakin eta Angel pasigue eritxoen eta erdeldun bazen euskaldun egiñik il ziran.

Lengo batez, ba, zeregiñik ezak eta kolkoan neunkan astiak zirikatuta bei-ñolako Iurre zarretik gaur egungora egin izan dan aldaketari neurriak artu-asmoz Garbe'tik Yurrebekoa'raiñoko zearketea egin neban, eta Gorbeatarra izutu ta zuritu egin ba'zan, ni konortegaldu egin nintzan, bidearen alde batean eta bestean, ormetan eta ate-buruetan gaztela jatorrizko iragarkaiak ainbestez ikustean.

Emen, ba, gaur egungo iurretarren izate ta nortasun narratsa, Auto Reparaciones, Hostal Aranzazu, Cooperativa Agrícola, Auto Escuela, Construcciones Vizcargüenaga, Auto Escuela Arratia, Carrocerías Yurre, Materiales de Construcción, Cervecería Lasarte, Peluquería Satur, Cafetería Itargi, Pescadería El Cantábrico, Librería Zárraga, Farmacia Cortázar, Caja Laboral, Caja Popular, Lavado y Engrase, Venta y Reparaciones, Maquinaria Agrícola, Alimentación, Carnicería, Caja de Ahorros Municipal, Muebles Edova TV, Cafetería Restaurante Ama-Lur, Bar Puerta del Sol eta abarren batzuk geiago.

Non dira euskaldun zentzundunak? Non Aitor'en IZKUNTZ ZARRA? «Gurutz zuria baltzitu da-ta, areitz orbela urritu, geratu ezer ez yatzu, seme onik AMA ez dozu...

ANTZERKI-JAIA

Aurtengo negu-zil edo ardatzaren inguru be, urtenaldirik, agertaldi ta zerik egin izan dabe arratiar antzezlariek; ala teatrolariek?

Bat, ain zuzen be, gaixoz nengoan oetik urbil, ondoan izan zan.

Ez neban ba ezer ikusterik izan. Abeslarien lana ostera, zeruetako go-tzon-aingeruena izan zala, entzungarria. Ori, ba, ori entzun izan dot eta, bai-ta be, ormetako iragarkiak oraingo MARZELINOEN egiñak, «mantxatuak» egozala.

Barrutia'ren lana irakurria dot, zarra da, erderaz ok egiñik dago, baiña, iñon ez dau Hacherik agiri. Olan dalarik ba, zergaitik guzurrez eta ez dan bezela iragarkaiak agertu? Zergaitik Teatro «Zaharra», eta zergaitik ez Teatro «Zaarra»? Zergaitik txori-lumadun katuak usategietan? Noiz arte?

Usoak arrano biurtuko diran arte.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Urte zarreko zatiak.—Zarraren mugartean jazoriko ainbat gauzatxo izan nituan, poliki biribildurik ber-azaltzeko barriaren asieran, nire arasa tolesgabean baiña sagutxuen bat ibilli izan da-ta, guztia ondatu. Alan da be, ba, ona emen, Arrati inguruetan eta Euskalerra zear jazoriko zerbaitzuk.

Erri-Euskaltzainditza egiaren bide jatorretik zuzenduz daroadanen batzar nagusiak Elgeta'n eta Tolosa'n.

Sasi-Batasuna: Idaztiño, liburutxo txikia, gartsua ta kementsu egiña. Lozaleak itxartu, alper ardura gabeak bizkortu eta ezjakiñean bidea galdurik dabilzazanak zuzeneratuteko pitxirik berebizikoena. Bi labekada izan dira agortuak.

Bizkai'ko Euskal Idazleak'ren egilleak bere, **Aurra Minetan** argitaraldu izan dauan-emenka **Marzelino'en** ikurtxoari tokia emonik. Ez da niretzat egiña izan, ez dot irakurri eta oz dot ezer esatekorik beretzaz.

Iñoiz entzun bere ez doguzanlako kumak (umeak) izan ditu urte zarrak: apaizkikumak.

Kristo il eta bertiztu egin zan, Lazaro bera bere bai... eta geiago nor?

Larogei urtetan «**Hil**» dan gizonezkoa izan dogu Bizkai'an. Larogei urtetan il izan ba'zan ba, larogei urtetan, alditan izango eban biztu-bearra be. Arrigarria!

Ikastolatzako istilluak ugari izanik, gogorrena Arrasate'koa. Gurasoen eskubide zuzena ezereztu ta azpiratu-asmoz 5'gn. **Indarra** deritxon gizonezko ta andrazko alkartu ta jagi ziran Begoña'ko Santutxu'n. Eldu ziran, baita. Arrasate'raiño, baiña, emengo «sierpea» burutsua ta bulartsua izanik, belarriak apal eta buztana eperperaturik biurtu izan ziran.

Eskillarapeko Gerbas'ek Urkiola'n bere etxean emondako itzak Bilbo'raiño'ko bideetan lau illabete cmon izan dauz. Oraindik orain illagirako ametsik ez egitea obe litzakigu.

Urtearen azken egunetan Albaro'ren alabaren ezkontza izan zan, Aramotz'en orpoan dogun Santalutzi'ren baselizan, Iurre'n. Ezkontza-jaiaren barri andirik ez dot, baiña jakin-egarriz danik izango ba'litz, Nemesio Anteke'ri itaundu besterik ez dauka, begiak bete-beteko negar-tanta mardulak zerk eragiñak izan ziran.

Eta Albaro nor dogun! Parra-parra ta plisti-plasta euskera besterik egiten ez dauan AGUR-zale sutsua.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

ARANTZAZU'KO

Iturri-antzu'ren ondoan, oraindik bizarge —bizarrik bakoak— diran zortzi mutil erdera utseko txirri-txorroan ari ziran, ta etxeratu nintzanean nik itaundu: Zenbat gazte erdeldun doguz errian? Eran-tzuna: Txirri-txorroka entzun izan dozuzanen artean bat bakarrik da erdelduna, eta bera izaten dan artekoetan, beti-beti, erdera nagusi.

A zelako gaztedia dogun iraulketak eta mundu barri obe bat egiteko; kanpotar bakar bat etxeko egin bearrean, zazpi etxeko kanpotar egiten ba'dira.

IURRE'KO sukalde baten nengoala, Dima'ko neskaitlxo bat etorri zan, izeko-osaba eta lengusu-lengusinaï ikustaldia egitera. Besarkada ta mosuzko arrera ta ongi-etorria egin ondoren, izekoak itaunka daragio, euskeraz, zuzen eta legezko dan bezela. Milla euskal-itaunentzat, milla erdel-erantzun izan zituan neskatileak.

Surtxu gure adiskide onak mokilla non jorik ba-dauka, euskal-alorrean, soloan, lan egiteko gogorik izan ezkerro beintzat.

ARRATI ta Mungi-aldeko etxekoandrak egin-dako odoloste, odolkien txapelketea ospatu izan gendun, ixil-ixillik.

Gamiz'ko Bar Alai'a'ko Mari etxekoandreari Tolosa'n egin izan danik txapelik ederrena jartzeko ustean gengozan, baiña, Zeberio'tik Leonor'ek bialdurikoak jatean eztabaidea sortu zan. Batzuen aostasaiak, naixta alde gitxi izan arteko, gora Zeberio'ko Leonor!, iñoen; besteenak ostera, aupa Alai'a'ko Maria!

Arazoaren erabagia estuegia zalarik, etorriko dan neguko txarri-ilketaren inguru, txapelketa barri bat eratu asmoz lanean diardogu. Ea bada, Arrati ta Mungi inguruetako etxekoandra goragarriok. Garaiz eta orduz izango dozue deia, araudia ta abar. Artean, osasunaz izan eta txarriak loditzen alegindu.

POZTU, arratiarra. Zentzunez, ornitua ta osotua dan idazle gazte barri bat dogu-ta. Errietan ikusten dauzan dantza-toki, gaztediaren izurri-leku ta gaztedi zoroegiekin kezka gorrian bizi dan gazte aulako baten bearrean izan gara aspaldiz.

Txalo ta gora, ba, Igorre'ko IRRINTZI zoliari.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

IGAŶ, janari edari, jantziak, bideetan ibilteak eta abar, guztiak izan eben gorakadaren ikutua. Eguneroko erdel-izparringiak be, arazo berberatan nastau izan ziran, baiña, iñor izan ete zan gure artean, erosteko orduan, garestiatatik atzeraka egindakorik? Zenbat euskotar eta euskaldun izango ete gara, urte onetan be, millakak lauerleko erderaren laguntzarako emongo ez dogunik?

Euskal aldizkariak berak be, bizirik iraun dagian, gura ba'dogu beintzat, legezko dan gorakadaxoa izango daula adierazo dausku. Urteko irureun lauerleko, eguneko pesetatxo bat ortxe-ortxe, txikito erdi mixerigarri bat gitxiago edatea. Zurrutada mirriz ezerez ori egunero egitearren, AGUR oni ta izkuntzari uko egitea zekenkeri gorriena izango litzake.

AGATE deunari abestuz eta goralpenak egiñez, Bilbo'n izan zan Arrati'ko abesbatz Agatezalea, buruz atzeratuak diranen aldezko eskea egiten.

Iparragirre'n «negar egingo luke nere amak ba'leki» datorkit burura, baiña «amak ba'leki»n ordez «ludiak ba'leki» askozaz egokiago deritzat. Arteaga'n eta Lemoa'n, arratiar seme-alaba abeslariak, zentzunez atzeratuak diran ume ta onen gurasoak, laguntzea ukatu dautsee kristau siñismendun (?) diran erri-arduradunak. Baita egite makur orregaz be, Erriaren oitura zar, garbi ta zindoa, Agatezale izatea, ezereztu naia agertu.

AGATEZALE abestalde onek gogoan izan bear dauana, urrengo baterako be, au da: San Mames lako leku notintsuetan eskale edo diruontzidun geiago bear dirala. Joko bitartea laburmotza izanik eta ontzidunak gitxiegi, millaka pesetaren oker aundia izan eben gure neska-mutillak.

Azken oarra: Ez al da izango Gorbea inguruetan aker, zekor naiz narru aundiagodun basa-piztirik, Joanpe'rentzat abarkak egiteko gauza izango litzakenik?

OGIBIDE barria. Garakoi'ko Txato surmottzak eta Arraño'k, erriko ardau onzaleen erabagiz eta aginduz, Errioxa'ko upeltegietan errirako izango dan ardauari neurriak artzea egingo dabe. Aurre-rantz, ba, izango dogu Iurre'n ardau onik eta nork edanik be!

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Gure lantokian, arratiarren artean, aspal-diko oitura da lankideen bat ilten danean bere aldezko jaupa, meza egitea, eta Arteaga'n izan giñan Larrabide'tar Lon zanaren aldezko meza ta otoietan.

Mezaemoilleak, zeatzik eta argirik azaldu euskun Barri-on edo Ebanjelio'ko legenardunen arazoa; lagun artetatik eta errietatik urruti ta bakarti bizi-bearraren illun latza.

Gure Erri onetan ez dogu entzun izan legenardunik iñoiz izan danik, baiña legenardunak ba'lira bezela urrinduta, etxea ta sendia itziarazota bizi izan diranak eta diranak, guraso anai-arreba, seme ta adizkide, legenarrik ezarren, alde bateko naiz besteko izateagaitik beste barik, zeinbat eta zeinbat gaur egun be basterturik, arrausi egiteko beste eskubiderik ez dabela.

Gosez diranakaz eskuzabal izateko be gogoratu euskun. Egarririk ez euskun aitatu, eta egunen baten egarriz diranai edaten emotea be eskatu eta edaria urrituko dala ustetan, a zelako edan-bearrak izan ziran zurrutokietan. Zurrutera emonegia da euskalduna, eta mama gozozale izatea matsondoa bazen zarra. Ardauren ardauz arpegi puzkarrotuak geiegi.

* * *

Gaztedia gazterik erre ta sakelak antzutu-teko jai-toki barri bat iriki da Iurre'n. Eta au barrabaskeria aitarenka ipiñi ninduna.

Zereko zera, Iturria ala Iturriaga'ko? Luziano an ari zan txurrut eta txurrut eta lagunai deika, San Balentin gogoratuz jai-toki barrian Uiski edan, andrazkoai igurtziak egin eta emazteari urtean bein pozalditxo bat emon asmotan. San Balentin, urtean bein baiño ez dok, mutil. Eta ganeko egunetan, zer? Ez Balentin ez Balandran..., emaztea bego sukaldean! Zuok Arteaga'ko emazteok, zartzaroan auzokoaren zale egiten diran senarrakaz kontu andia izan mutilzarrak baiño be gaiztoagoak izaten dira-ta.

Mendizale gogorrak doguz Arantzazu'ko gaztedian, baiña Arteaga'koak eta Lemoa'koak, alkarregaz ondo buztartuten diralarik, askozaz be gogoragoak, Mendigane'ko edur biguna ta Arraba'ko leitu-izoztua oinperatu ondoren, bazkal-orduan errian izan ziran barrien barri. Bernaola gaztearen okotz-bizarra otzaren otzez gorritzen asia egoan, eta lemoatarrarena barriz gorri-bellegiturik, orituta.

* * *

Laztan eta gorantzi AGUR onen bitartez Ibarrekolanda'ra bidean (Deustu'n) bizi diran Bilbao'tar Miren Josebe ta Andoni neba-arreba gaztetxuai. Aitari esker, gaurdik antxiña astero izango dozue etxean aldizkari roli au. Aurrera ba, jo-ta-ke!

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

OSTIKOKETARI BURUZ

Ingalandarren zorioneko jolaz-joko au, lurre'n bertan be, ez da atzo goizekoa, aspaldi antxiñakoa baiño. Berrogetakak urte joanak dira Santi Torre'ren zugarartean jolastuz jokatzan asi ziranetik. Oraingo landa zelaia... 4'gna?... 5'gna? ziurki ez dakik, baiña, zera bai, obetuten eta edertuten alegiñak egiten diarduela, eta aurrerantz Itxue ta emaztea izango dirala landazaintza, jokolarien soñnerakoen garbitze, sarrera-txartel saltze ta abargaz arduratuko diranak. Guzti au egia izango ba'litz Ben Barek'eri beia antzutu izango litzakio.

ALBOAN dodazan lagun bik ostikoketa kirolatzaz barriketari diardue, ta arteagatarrak areatzatarrari diñotso:

—San Mames'erako aurtengo sarrerea zenbat ordaindu dok?

—1600 lauerleko ortxe ortxe.

—Eta ik?

—Bi milla.

Emen doguz ba, gure akatzak eta laktzak; euskaltasunik ezer ez dauan jokoaren onerako ta erdel egunkariaren loiditerako millakak lauerleko bapere miñik barik. Gure aldizkariaren osasun eta bizigarrizarako emotean zirkin asko ta sudurra gazi.

EGUTEGIAK

Negualdian giro epela gozoa be bada-ta, sukalderik askotan izan naz, eta geien batzutan uts au ikusi izan dot: urteetan ARANTZAZU'KO AMAREN EGUTEGIA'rentzat izandako tokiak ut-sik eta billozik. Ea bada izaten dogun, etorriko dan urtean, Arantzazu'koak orrian-orrian agertzen dauan ZATIKERI ikurrik (H) gabekoa, erribide batasunean egiña ta eratua.

EZ AL zenduen, arratiarrok ikusi, AGUR'en, 69'garren zenbaki edo alean, aurpegiz gotzon-aingerutzoa ta txapelez euskalduna irudian on eta alai itxurazko narratzia «bulego»tik ikastolarako bi-deetan? Politik eta begikorik iñon izatekotan, bera dogu, itxuraz beintzat. Baiña buruaren atzetik tatarrazka eroian zorro luzangan lupua, bera bere orixi da-ta, besterik ez eukan. Kontu aundiz eta oartsu bizi ta jokatu-bearra dogu ba, lupudun zomorro-mamarro lupuok, sagar, sagarrondo ta ikastoletako izurri ta minbizi doguz-ta. Udabarrian ugaritzea izango daben baiño len, ondo izango litzakigu, gure ume ta euskeraren on eta osasunerako, inguruak DTN'noz lurruntea.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Itxasoaren asarrealdi ta ekaitzeetatik igesiz leorrea barruratuz joan izan ziran itxas-txoriak, barrien barri ur gazietara biurtzen, txutxu-mutxuzko albiste onekin etxeko ateetan izan dodaz. Ba... zera: Iurre'ko mutiltzarrak Arratia'n diran guztiai (asko ta andiak) dei egiñik, udabarriz odolbarriztea izango dabenerako gertu egoteko, guztientzat onuragarri izango dan batzarra egiteko asmoz jo-ta-ke lanean diardue.

Beranduegiko ametsetearen buruak Iñaki ta P. Luis taberna-bertsolaria; aolkulari, Solaguren'go Patxitxu nire adiskide osoa; idazkaria, Urtubi'ko Peito.

Negu ontako otz-ondakiñak ez dagizuela ozpel-azkurdiñik atzetan egin. Udabarria izan bite zuen ametsen atsegin.

DIMA'KO Ikuturri-burun. Landatxu'n, basurde eder bat il dabe, eta zeanuritarrak, San Blas mendietan, lau.

Zeanuritarrak lenago bere, orain baiño basurde gitxiago izan zan aldi aretan, ziri ederrik sartu euskuen, atxurkadaz il eben etxe-txarria basurdea zala siñistuazoz.

Oraingoan eratsitakoak egitan be benetakoak izan ei-dira... baiña beste eiztarien batek egiñiko zauriz gaixopetuak.

Lau piztiak lukainka-txorixo biurtu-asmotan piper txiki gorrien billa batera-bestera ibilliz ibilteak egin ondoren, zer egin dabarik oraindiño ez dakigu. Jakin begie baiña, gertaera barrien baterako be, etxean dodazala piper osaturik asko, utsaren putz pozik emongo neukazanak.

Piperrok azi baltzetik sortuak dira. Arrotzerri-zaleen lan neke gabea. Txipiroti-saltsa egiteko egoki-egokiak, eta lukainkatarako besterik ezean .

Emen ba, «Felipitoen» baratzean baturiko iru txortatxo: «Erreboltarien erregelak klasifikatzeko kulturaren mugiarazte polifonikoa». «Autore sonatuek sjiaturik euskara anarkiari buru kebrantzazko iniziatibitate». «Personalak eta publikuak esistentziaren bendekuan».

Gaur egunean, «kozinamenduak kozinatzeko, naiz-ta iñoren aosapaiak oneretxirik emon ez, badogu kozinalogo ta saltsalogiarik».

BILBO'KO Anton deunaren txadon-eleizan, illak 25, Zornotza'ko bideetan ezbearrez il ziran Oyarbide'tar Iñaki eta Zerbero'tar Josu'ren aldezko urteurren jaupa-meza izan zan. Euskal-areitzaren kimu barri kementsuak ziranen biziera zintzoa, ta eriotzaren garratza, biotz-ikutuzko bertso zorrotzez azaldu euskun Iñaki anai donostiar jatorrak.

Mezaren erdian, txistuaren laguntzakin, zuri-gorri jantziriko gazte gordinkotea, bere anai ta lagun ziranez, omenezko dantzaldia egiten agertu zan. Amaieran, goi-goian doguzan bi gazteai agur bero bat egiteko, Agur Jaunak abestu izan genduan ao batez.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Lugintza-lana, lurragaz «burruka» egi-fik ogia irabazi ta jatea beti izan da gogor-txo, eta artzaintza bera bere doakabeen morrointza latza.

Etxean izan genduan gudea eta Europa'koa amaitu ziranetik, langintza ta biziera barrietara emona izan da gizadia, eta langintza ta lantegi barriak erri aundi eta urietan zelan ugaritu, alantxe ba baserritar zein artzain erbarreneratu, kaleratu; neke bigunagoaren atzetik, atsegin gozoagoaren billa, zortzi orduko lan-egunari orpoan jarraituz. Artulezko galtzerdi ta abarkak ateaurreko intxaurrean bertanbera itzirik, zati barridun praka zarrak sasira jaurtirik.

Orrenbesteko bat egiña dogu Dima'ko Basauri'ko semea bere, Bilbao'tar Joseba. Lenago, udabarriz, lugintza ta artzaintzatik bizi izan zanean, bildots-betekada ederrik egiten eban, zilborretik okotzeraiñoko betekada koipetsuak. Gaur egun oster, akerkumea jateko gogo bizi-bizia izanarren, lenen-lenen sakelaren osasuna ikusi ta neurtu bear; gero, aragitegira, eta sarritan, dindillizka egoten dan artxo-iztarrari, bego beste bat arte esan, eta anka egin bear.

Kalean ondoen bizi, neskarren txakur-txoak, eta areik bere ortozik.

Egito'ko Faruk erregea izan zana berbera dirudian arratiar ezagun bategaz aurrez egin eta agurtu ondoren diñost:

—Euskeraz idazten ba'nekik... izango neukek zer esanik, ik baiño bost bider oberik.

—Txarra ontzat eta ona obetzat salduz erririk-erri ta etxerik-etxe abil-ta, izango eunke, bai ik, egiaren itxurazko guzurrik eta zer esanik. Alegindu adi ba, gatz eta piperdun barriak batuten, gero, biok ekiteko arratiar AGUR'zaleak janarituten.

—Nik neuk orixe ez gero, ta beste ezerrik be diru barik.

Agur, beste bar arte, Don dirudon; altza intxaurtzat saldu eta... dirua bon-bon.

«**H**»a **hache** bigaz idaztearen zergaitia itaundu izan daust batek-eta, emen erantzuna: Nire uste apalean, ba, batasunaren ama «omnipotentia» dalarik, txiroegi ta gitxiegi izango litzakio beren izena «h» bakarrez agertzea. Beraz, viva la HACHE txanpanakin, SANTE ta deabru guztiakin.

OARRA: Mantzarraga'ri, Artabe eta S. Etxebarri'ari, Santiko, Ipolito, Oba'ko Patxi, Artaratz eta J. Espartari. Begoña'n diran J. Agirre, J. Elgezabal, Iñaki, Dioni, Uda-Berano eta Garbe'ko Elezkano'ri: Campo Volantin'go baztertxo bateko zugaitz goiztarra lora zuriz jantzirik dogu igarotako ia illa bi onetan. Itxartu, jagi eta poztu zaitez ba, lenago egiten zenduen bezela.

Arrati'ko Agatezale Abesbatza'k, zentzunez atzeratuak diranen alde batua, 180.000 laurleko ortxe-ortxe.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

ARRATIA'N izan dogu izateko zerik, Bedia'tik Barazar'en orporaiño Dima bera bere arteko izanik. Ekin aleko euriteak, edurtza, lei ta izozteak eta, azkenez trumoi ta odei baltzen illunaldia. Etorri da baiña udabarria, urez aundituta ibaitxuen galgak jatsi izan dira lengo senera, eta itxaropen eguzkia basotik urten, zar eta gazte, andrazko ta gizonezko naigabetuen nasaigarri. Gora ta gora biotzak!

EUSKALTZAINDIA'ren Bilbo'ko «bulegoa»tik bialduriko orri bat jaso izan dot «alfabetatze kanpainaren» aldezko laguntza eske eta, arretatsu irakurri ondoren, emen neure buruari itaunka.

Izan bear leukenlako Euskaltzaindia ala izan ez bear laukenlako Hachezaindia ete dau, gaur egun, Euskalerrria'k?

Soka-musturra eskutik itzi gabe eta luzetuz eroanez, azaldu dagidan ba, zeraren zera: Orriak, agertuz daroan gaia ta mamia; erderaz eta euskeraz egiña da. Erdera-saillak, bost hache besterik ez ditu, euskerazkoak barriz ...«ogeitamar» baiño besterik ez.

Erria alfabetatzen ala «H» alfabetatzen ari ete dira gure jaun gurenak? Batasun gurpil-txirrinkeari ala zatikuntzanari egiten ete-dautsoe koipea? Erreztasunak aurkitu bearrean zergaitik, zer dala-ta orrenbeste «difikultate»?

Bakoitzak ditu bere aburu ta erretziak, eta nik, neureak. Gaur egun doguzan Bulegologo ta Bulegologiakin ez nator bat. Eta kitu.

EMEN beste zer bat bere.

Izenez Paco Puzuelo, izatez andaluzitarra eta euskereak belarrietan miñik egiten ez dautsana da; eta iñongo iñon euskeraz idatziriko itzik ikustean zolirik jasoten dau orritxuren batera, niri erakutsi, ta gero, erro-errotik ikasi.

Lengo batez ba, mai, aulki, aur edo ume ta abar marrazturik eukazan orri bat aurkitu izan eban aulako idazkerakaz: «Hau haurra da». «Hori mahaia zaharra da». «Haurra mahaia zaharraren behean dago».

Nik, ba, euskera «modernoaren modernologia» ikusirik, marrazkiak eskualkin estaldu eta, ondoan neukazan euskaldunai irakurteko emon. Oneik, baiña, tutik bez ulertu.

Itz berberak barrien barri agertu neuntsoezan. Oraingo ontan «H»rik bari. Guztia ulertu eben guztiak.

Arratia

ZUR GAZTEOK

Pipil aundituak lertu-zabalduz, loratuz eta orrituz udabariaren bideetan goraka doiazan zugaztiak lez, guk bere izango dogu, bizidunak gara-ta, udabariaren zirriztadaxoa, odolaren biztute ta bizigogo barririk. Eta egitekoak egiteko, naiz len egindakoak barriztuteko, udaldiaren begira izango gara, noiz etorriko.

Euskal-jairen batzuek antolatuko doguz. An, abestiak; emen, erririk askotako umetxuen batzar-eguna; or, txistulari ta dantzariak eta, beste lekuren batean, ikastolen laguntzajairen bat edo beste. Aitatuz daroadan guzti onetzaz baiña, burutsu ta zur jokatzuz, kemen-tsu agertu bearko gara.

Edonon eta edoczlako orbelartetan izango dira, adi-adirik, suge iguingarri narraztiak, eta oillotege inguruetan luki-azeriak, oituzazko ta bearrezko doguzan jaiak zapuztu nairik, azpi-jokoa egiñik.

Erria naigabeturik dago; ez gagoz jaiak egiteko!, esango dabe oyuka, uiskiren-uiskiz mosua gorrituta.

Ondo da, bai, eta bidezko, norberaren lagun urkoa gogoan izan eta laguntzarik ugariena eskeintzea, baiña arnasaren bearreran doguzan oitura ta ekintzai azpi-jokoa egitea, makurkeririk gorriena litzake. Zutunik eta zur, bada, guztiok, batez bere gazteok.

ARROKERIA ta geiegikeria ez dira iñoiz gizongille izan-eta, amaika egurkada artu izan dau geiegikerizko arrokeriz agertu zanak, boikotarien «h» errukarriak.

Tututik artzekoak diran osakaietan zartzeko bere, goiak eta beak joez, bost bider alegindu izan dira, baiña eznetara bazen txalgintzara, beiak utsa emon. «Ñ» gixajoa ostera, beren zeregiña egoki ta gizonki beti bete izan dauan arren, langille apala izateagaitik, zera egin dautsoe, txapela kendu, burutsik utzi ta «N» biurtu.

Emen ez da amaituten «Ñ» aren bizi guztia eta geroago bere ez. Ba-da «kasetari» bat astero orrialde bat betetuten dauana, aldi baten nire kutuna izaniko asterokoan. «Ñ»a guztiz ezetsirik eta basterturik dauka, baiña, lanaren orpoan, izenpetutean, antxe agertzen dau, txapelakin, polito jantzirik.

Aulako fariseokeririk ikusteko be! Iñorentzat «bainak» eta, norberarentzat bildotsizterra, bizkarkia ta garaunak.

UNTZE SARTZEN

«Aaiun», Afrika'ko erriren baten izena dogu, baiña ez nator bertatik, Mañari'tik baiño, kolko bete negu-kerexakin, bear diran beste untze (h) bear diran lekuetan ondoen jo ta ondoen sartuko dauzanarentzat izango diranakaz.

Zenbat untze bearko, bakoitxari bere lekua emonik, Sasi-Batasun euskerantoon?

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Oraindiño ta oraindiño be, naizta gaztedi barriaren begiak zabal-irekiten asiak izan, amiltegiaren ertze laban irrizkorrean gabiltz; batzuk gitxiegi irakurtearen erruz, eta bes-tetzuk oker emoniko zankadak atzerantz jotzen lotsati ta kaskaillu diralako. Gazterik geienak baiña zuzentasunaren egarriz datorriguz eta, ori dogu gaur egun biarko itxaropenik onena.

Txanpan-bonbillen tiro-otsez Eztzaindia'ren ala-olako garaipena ospatu ebenak dira, arteko, tiraka-taraka zuloratu ta betirako ito naigaituezenak.

Onetariko batek, aspaldiz eta oraintzu arte, txairorik agurtuten nindunak, gaur egun saietsa emoten daust. Ete naz ba, bera-gaz bat enatorrelako errudun?, ala lotsatu egiten ete da, «nora eguzki ara zapi» askorik egin izan daualako?

Bedar landara bat ezertarako be ez da, asko barriz, alkarren ondora estutuz eta kiribilduz, ipuztarriak berak bere txataldu ezin-ñekoa. Emen da, ba, Erri saltzailleen untzerik zorrotzenatariko bat: zatituta, bananduta eta indargetuta gu ikusi naia.

Noizdikoā dan izurri au? Txanpan-eguna baiño lenagokoa. Sasi-Batasuna'ren ikurtxoa kukurrukuka asi izan zan baiño antxiñago arturiko erabagi gaiztoa.

Zerua ta inpernua sorginkeriak eta, eleiza guzur utsa da eurentzat; alan eta bere, alak eta bost egin izan ditue zeru-inpernuari laguntza eske lupukia eleizetan sartuarazoteko; nastea, asarrea ta otza sortu asmotan. Anaxu prakagorrien buztana baiña, luzcegia ta ikusiegia izanik... zankartean estaldu ta anka egin bear bertatik.

Ikastolen batzutan ba-dabe indarririk oraindik, gurasoen ardurarik ezagaitik, eta emen, tamala ta oiñazea, naigabeturik naukana:

Nire adiskide oso-oso bat, arratiarra bera

eta, guretar zintzoenatarikoa, itsu-itsuan Jainkorik gabeko ikastolan irakasteari emona.

Txar eta gaizto dan ezerrik ez ei-dau ikusten; baiña, aolku edo burubide au azalduko neuskio: gure aragi bigunean suaren errea betirako geratzen dan ezker, txingar eta illintien artetik iges egitea obe, azkar eta aguro.

* * *

Arantzatzu'n, kizki-kazka alkar aitu ezin-ñik diarduen artean, Isabel'ek eta Zuazo'tar Joseba'k, biak bietara ta ixil-ixilleen etxea udabarritu. Marti-zozoak lakoxe bizkortasunez udabarriari aurrea artuz, uguztatzean, bateatutean Kepa izena ipiñi dautsoen sei-garrena izan dabe.

Zorionik gartsuenak guztioi eta, alegindu zaitezte anai barri bat ekarten Kepa txiki-txuari.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

AGUR onen «Errietako Barriak» orri-aldean, igarotako udagoienez, talaburdin bat bera bere ez nebala aurkitu Zea-nuri'n, esan ba'neban esan... Jainko laztana! Zertzuk entzun bear izan dodaz! Esku-utsik etxeratu nintzala egi-egia da baiña, gaur alakorik esan ezin.


Emen doguz ba, argazkian, naizta iluntxo txiki-egia izatean, J. Ozerin, suiña ta illobak. Eta egia ukoeziña da-ta, emen nozue Josu adiskidearen zenbat gauza azaltzera etorrira.

Ba-ditu, bai, talaburdin eta burduntzirik, baita morokil-maskillua lara-tzean dindillizik; gaitaiñatarako tanbo-liña, barriz, sorgin-zuloz beterik... ur-teetan berotu barik.

Buztiñezko lapiko paparbaltza, iru ankako krispin; goroztizko suatzak (te-nazaz), auspoa ta lapikoburdin.

Odolosteak, buzkantz eta lukainka sapaian kilin-kulunka. Ozerin erronka-ka. Gu barriz emen, kale gorrian, noiz entzungo... adiskidea deika.

Gaitaiñarik ikusi ez-ta... odolosteak



bere joan ziran; orain jakin nai dogu-na... lukainkak zelakoak diran.

ABELETXE

Ete dogu irakurlerik euskal-idazle azkar onentzaz harririk ez dakianik? Antziñako sorgiñen atorratarako, zein gaur egungo «anatzu prakagorrien» prakatarako oiala nondik ebagi te zelan josi ondo dakiana dogu gero bera. Untzea joten eta leku egokienez sartzan bere ez ala-olako.

On Gabirel Manterola'ri kementsua deitutean, 80 grn. Agur alean, ederki jo izan dozu untzea, buruburuan alan be. Beratzaz diñozuna, argi geiagorik bear ez dauan egi utsa.

Ni gaztea? Ez gatoz bat. Gazteak ez al dira ba «mahahien peatan samasarratuzko mihahuhak egiten dituezan katutxoak, huhurrukuka, geurea da munda, esaten dabenak?

Gaztea naiz zaarra, zaarra naiz gaztea, ni ez nozu ba orreiktariñoa. Zaarren lorratzetatik noa eta kukurruko egingo beti-beti. Inoiz ez huhurruku ta mihahurik.

Onenbestez zure GAZI-GAZAREN begira.

ZER egingo, orain, langilleak, ainbes-teko dirutzakin, 168 lauerleko alogerakin? Gaztediak izango dau uiski edan eta jolastu-bearrik.

Gurean bere izango da ba, txitxardin, bildots eta Bermeo'ko lebatzilk.

«ASMOAK asmo ta okerririk ez baldin ba'degu, zuekin izango gera» diño UXO-LAK, Tolosa'tik.

«Zuekin» esatean oiartzuar antzezla-riak, errenderiarrak, urnietarrak eta Bizkai'ko arantzazuarrak aitatzen ditu.

Zur te arne, bada, Arantzazu. Eta ga-raipena gizonki Arrati'eratu.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Gaur, ba, arriagaz egiña ez dan arri-garrrik arrigarriena azaltzeari emonik nator eta, Arrati'ko Areatza'tik Bilbo'ra joan eta an bizi diran senar-emazte batzuri jazoten yakena da ain zuzen be.

Amairu urteko seme bakarraren gurasoak dira, eta orain amairu urtetan antzualdia izan ondoren... «amairukiaren» begira doguz.

Gurasoen izenak ezkutatuz aitabitxi izango danarena aitatzeko agindua izan dot eta, emen nor dogun: Txomin Ibarra. Jaiotzez zeberioarra, Arteaga'ko Iallejan gizondu eta Iurre'ko Olabarri'ko Plazida'ren alabagaz ezkondua. Aurtxoa etortzen ba'da etorri, Jaunak nai ba'dau alan izan bedi, edariz bustiak eta gozokiz gozotuak izango dira Zurbaran, Matiko ta Uribarri.

Agur bada, Txomin; zorion Atutxa'ri, ezergaitik bere ez itzi AGUR irakurteari.

Orain egun batzuk Araba'n izan nintzan, Laudio'ko Areta auzotegian, 30 urteokaz ikusi barik neukazan Donibane Pasai'ko Goyenetxeak'tarrakin. Izan genduan autu-mutuan, areik, giputz-kresalezko euskera berezi «goxua» zerabilen, eta nik, nire aldetik, bizkai-gipuzkera nastua.

Ez genduan izan, ez orixe alkar ulertzeziñik, eta ango euskaldunakin naiz bestekoagaz ulertutea gura daunak, badauka, gaur egun, biderik. Eta biderik ederrena auzoa ezagututeko, sarri ta asko irakurtzea, artu-emonak zabaldu ta sakontzea.

Betor erribideko euskera batua! Utikan batasun izeneko batugaitza!

Jorraillaren lenengo egunean, aspaldi onetan ez-ta, erdel egunkari bat irakurteari emonik nengoan. Lenen begirakadan ogeitamalau urte ditun bakearen izenburua aurkitu neban, ez neban poztasun geiegirik izan. Ekin eta ekin irakurteari, ez neban aurkitu txokorik egiazko bake utsa dauanik. Emen, lapurketak; an, gizonen aitu-eziñak eta alkar ilteak; arantzago, gosea batetik, lobelar lizunkeria ta ezbearrak bestetik, lurraren narrua urratuz daroagu, sakon-sakonetik.

Arantzazu'ko barrien batzuen artean au jaso izan dot: ARANTZAK eta OIARTZUNAK gogor eta gogotsu diarduela Tolosa'rako gertakizunetan eta, ibilli bearko bere bai.

Bai, mutillak. An izango dozue UXOLA'ren luma bizkor-zorrotza, an egingo dozuen lanaren barri AGUR ontan azalduko dauskuna.

Ea ba. Ekin eta jarrai.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

IURRE'n izan dan itzaldiazaz Goirigolzarri gazteak egin dauskuzan azalpenak (AGUR, 83'grn. zenbakia, GAZTE orrialdea) ba-dabe mamiñik; eta pozgarririk be, zentzundun gaztedi barriak eraturiko itzaldiak. Gora ta gora ba, gaztedi barri. Su ta ke, aurrera, beti.

Itxaroten zan-da, etorri bere egin zan «H»ren aldeko bat, esaten, ditongoa apurtzeko crabilli bear zala bokal bardiñen artean. Bokal bardiñak apurtze-ipuiñari buruz, emen ba, neu bere, neure zerakaz jaun aregana argitasun eskea egitera etorririk:

Bi bardiñen artean erabiltekoa izanik, esan egiguzu, arren, ezbardiñen artean saritzearen zergaitia. Adibidez: EIZA, BEIN, LEIAKETA eta abarrek bokal bardindunak izan ez-eta, zergaitik ba, «Hiza, beHin, leHiaketa, biurtu? Zergaitik HURBIL, HOTS HEZI, HARO ta abar diran itzen bokal bakarraren aurrean, eta zergaitik ezBELAUN, AUSART, AREAGO, AINITZ, AINTZINDARI eta oneik lako milla itzen bokal ezbardiñen artean?

Ez bedi etorri ba, gaztelar-izkuntzak dituan arau zail, gaitzak iruntsi-arazoten. Ez bedi etorri, ez Ha-Ha'gaz egiñiko morokilla-kin janarituten.

Entzuleen artetik beste batek: «Nire amak, ikasia izan ez arren, Anaitasuna'ko % 85 ederto ulertzen dauz». Ba-litzake, bai, ama goragarri ori, ez-ikasia izatea, baiña, erderaz poliki dakiana izan bear noski, nai-ta nai-ez.

Jarraituan emen agertuko dodazan erdel-txorrotxioetatik bere, nire errikide ama arek, % 100 ulertu al izango dauz; nire amama Juliana'k eta izeko Mañezi'k barriz, erderarik ezekien euskaldun utsak izan ziran-eta, tutik bere ez.

Emen doguz ba, aitatutako txorrotxioak: «Euskal-izen propioan dokumentazio minimo batekin informatuak Euskaltzaindian izango dira», «Famili eskemaren esperientzia famili kontsumoa estabilizatzeko».

Ikasi daigun euskeraz, ikasi baita erderaz, izkuntza bakoitxari bere toki ta zeregiñak emonaz.

Amaitu eta agur egin baiño len beste esan-bear au bere ba-dot. Ni bere ba, zoritarrez edo onez, gitxi ikasia nozuc, baiña, euskeraz irakurtze zaletasunari esker, tolosar, oiartzundar, zarautztar, leitzatar, donostiar, pasaitar naiz beste edozein erritako anaiekin, arcikna zolirik entzun eta nik neure erara parra-parra egiñik, ez dogu izan, orain arte beintzar, ulertu eziñik.

Onenbestez, agur eta goratziz beste barte.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Aupa, aupa, geurea da-ta, geurea da-ta... udabarri. Eta udabarria etorri zan, negua bizkarrean ekarrela; negua joan zan, eguzkiaren epelak erazota.

Aste Gurena bera bere joan jaku, Egucn guren eta Bariku; Azkatzaillea il eta biztu, gizona len bazen katigu, ta pitean-mitean izkilluaren daunba ta durunduz odolustu.

Zer ikasi ete-dogu barririk Aste Gurenez? Ikasi bear geunkan baiño gitxiago; ikasteko era dogunean ikaskizunai bizkarra emoten dautsagulako.

Iru itzaldi entzun al izan dodaz eleizkanpaipetan, Justin Arteaga, Ander Mantetrola ta Balendin Zabalo'rena. Bakoitxa bere arian oso ederto, samasarraturik gabeko cuskera samurrean.

Iurengandik izan genduan zer ikasirik eta zer barriturik, atsegiñen baiña Zabalo jaunaren gai eta irakatsiak, neuretzako beintzat. Orain-aldiko apaiz zintzoentariakoa dogu bera, ta ikasia. Kristo, Eleiza ta gaur egungo arazo latzik asko, bata besteagaz gozo-gozorik loturik; nondik, zelan, zertarako eta zergaitirik asko dakiana.

Eleizaren kerizpean bere, ba-dogu zer ikasi ta zer ausnartu.

Ondo ta kementsu izan bitez iru izlariak. Garmendia jaunari, agur eta gorantziak.

Eta Arratia'ri berari buruz zer?

Bedia'tik Zeanuri'ra bitarte ta Dima'tik Zeberio'ra, neskuts edo birjintasun ezaugarri diran lora-txorta zuriakaz neskatil panpoxak eleizarako bideetan «bai, bai, bai» jauna, esan-asmotan, agertuz eta ugarituz doakiguz. Bidezko dan ezkontza-alkartze egun zoragariaren begira diranak iñoizkorik ugarien, eta neskatil oncin begitarteak, laster baten egiztatuko diran ametsen irripar gozo-gozoa azaldu daroe.

Arteaga'koen barririk ezin eskuratu. Justo Ibarra'k ezkontza-soiñua entzun izan dau. Mallubi'koen alabeak, AGUR onen lenen arpededunak, eguna aukeratuta dauka. Pitiño adiskidea bere alabearen altarara joateakaz gertakizunak egiten asirik, eta Begofia Artabe, bizi-bizi, abigintzari emonik. Eleizetako atectan ume-pillak, ara-orrak arifieketan, ugutz edo bateo gozokien atzetik, arrapaladan. Guzti oneik, udabarriaren ikutu ezau-garriak. Bizitza-aldaketa, amets barri ta gero-aldiaren oiñarriak.

Irutzuk guraso aurkitu izan dodaz, bi-dean; Aitor, Iratxe ta Idoia txikerreri oiuka ta deika. Gelditu nintzan, ba, ta agurtu neure eran ta oituran. Eta erantzuna: «No entendemos el cuskera» ta guzti. Izena bat, izana bi... ama cuskereari gorantzi.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Txinatar begi-txeratsu guda-buru bi, gero-al-dian be gudaketarik izango dalakotzaz, jo-ta egiteko aginduak emoteko izkuntza ulergaitza gura ba-ta, Bilbo'n izan ziran **BATUA** ikasten, Iru llabetean ekin ta ekin, ikasi ta ikasi Batasunaren Kutxa bere oso-osorik buruan sarturik eukeela, «maistu» biren aurrean aurkeztu ziran azterketa egin eta ikas-agiria eskuratu asmoz.

Itaunak itaun, erantzunak erantzun, antxe bai bazala egiazko **EZBATUA** ta ulertu eziña irakasle ta ikasleetan, lau gizonen artean. Eta txinatarrak, batuk «batua batatu batu, batatu, batu batatua», eta besteak «babel barri, babel aundi, babel aundi babel barri» iñoela eskutsik txeratu ziran, dalako batuarentzat itz barri egoki-egokia asmaurik. **BABELBARRI**.

IDAZTEN diardudan une onetan itxaroten nebana eskuratu dot, baiña, nik uste neban bezala egiñda ez dago.

Artu dodan zer au idazkitxo bat da, egunen batzutan euskerearen eta erderearen erdi-erdian bere burruagaz eta buruagaz burruka egin ondoren, Zuazo Edurne'k Arantzatsu'n egiña ain zuzen be.

Neskatilxoak, ba... euskeraz iñoiz bere ez daukala idatzi-ta..., jakin bere ez dakiala zelan egin-ta, erderaz utsituz agertu daust bere barrua, jakin ezaren lotsa ta zera adituarazorik. Ori bai.

Arduratu zaitetz, bada, Edurnetxo. Asi, ekin ta burrai, eta Zeanuri'n dozun izeko Mari'ri geiago egin arte ez gelditu.

JAKIN bedi irakurleak aur edo ume barri bat izan dabela Zuatotarrak. Aita-amabitxiak Edurne bera ta Joseba Andoni, eta bateatutean, gurasoak inguruan zirala, gaueko amarretan, A. J. Jose'k txikitxuari Kepa izena imiñi.

Zorion, ondo izan guztiok eta, seiña ondo aza ta ezi. Berdin diñotset Peli ta Belen'eri.

BAGILLA'ren 2'gnean (J. L.) ezkontza izango dogu. Alde batetik Amatermin'go Balendin eta Mari Dolores'en a aba, Felisa Garaigordobil; eta besterik Joan Mari Azkorbebeitia. Otxandiar-rak, biak. Jaioterrian ezkonduko dira ta Bilbo'n biziteko asmoz dira.

Neskatil lirain-lirain au Otxandio'ko Txapel-txapelketan Tolosa'n egin izan dan txapelik onena ta lenengo saria irabazia da. Ezkongai dan arte, adiskide, gaztaro-lagun naiz ezagunen batek agurtu nai ba'leu, Carniceria Vieja deritzan kalean, Bilbo'n aurkitu al izango dau Urrutia'ren saletxean.

AGUR ontatik agur eta zorion guztioi. Eta zuk Balendin, bildotsik onena loditzeari ekin eta, ez itzi.

JORRAILLA'ren 29'gnean gure adiskide on Zubiñas Fernando'kin Bilbo'n izan zan zarauztar taldeari eskumuiñak eta gorantzi.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Joan izan dan astean ba, «Txinatarrak eta Batua» aizetu nebazan, eta batuaren landan arrezkeroz irakurri dodana irakurririk, ba'ete dogu inortxo... egia izango?... ipuiña izango? ez-baia izango dauanik?

Jontxu, Elias, P. Mari ta abar EZINBATUA'ren saracetan nasturik eta lotuta zagozen adizkide oso onok: Ez al dozue irakurri, bere era eta taiuz egiña darabillan batuan, zeuona dan aldizkarian agertua, «batua» ikasten diarduen biri gertatua? «Batuak» «batu» egin bear doguz, diño idazleak, eta Euskaltzaindia'ra jo dau, «batua» bakar bat egiteko argitasun eta laguntza eske.

Eta orain, erantzun, arren: Zenbat «batu» doguz? Zenbat txinurri-mendi ezbardin? Zeintzuek BABEL BARRIA'ren asmatzailleak?

Bai, mutillak, bai. Aulakorik! Nik uste ba, eta nilako epeltxo-pepeltxo askok bere bai, or-emenka bakoitzak bere arira jarrita daroan iturburuko ura (H), pol-pol asi izan zanetik iturri bakar bat geunkala. Baiña, bai, zera! Len baiño, iturbegi geiago, eta edateko garbirik iñon ez. Guztiak «kontajiatuak». Arantzazu baiño aragotik datorkigun gaitz eta izurriakin, irabazlea nor? Izkuntzaren eta Erria'ren arerio makurra besterik ez.

* * *

Gure errian, Iurre'n ba'doguzala entzun izan dot, errotarrizko betaurrekoz zear Mokoroa jaunaren begian zera ikusi ebena, eltxoa. Arrezkeroz izan dogu erdera itzaldirik. Zergaitik, bada, orain mututurik? Kendu, arren, begietako errotarriak, eta inorenzatzat dogun eztenagaz norbere saiets-arte zuluotu, lenen. Baketu zaitezte gazteok. Zatoze Aitor'en artaldera.

* * *

Besterik be jazoten da gure errian. Gure arbasoentzat, asaba edo gure aurre-aldian bizi izan ziranentzat argi-argirik ulerkorra izaniko itza, «bera», albagin eta aurreagiñez ornidurik eta begiak zabalik umeak jaioten diran aldi onetan, ulergaitz biurtu. «Bera» ta «behera»ren bearra ei dogu gaur egunean.

Bai, bear ei dogu, «behera» ori, baiña... morokilla errezagoko egiteko, bestetako ez. Obe litzakigu amari, aitari, arrebari ta abarrereri «ikusiotset» esan bearrean «ikusi dot» esaten ikasiko ba'gendu, txatxukerriak alde batera itxirik.

JAIOTZA TA EZKONTZA

Jose Mari Ibarra'k eta bere emazte Ana Mari'k bigarren umea izan dabe, GORKA. Txomin eta Dolores bigarren illobaren aitita-amama egin dira. Plazida ta Ageda barriz biramama bigarren aldiz.

Bilbo'ra noa ta Bilbo'tik nator, urmin eta artegarik dabilkigu, au egiten diardutanean, seme barri baten begira dan Kepa Etxebarria be. Ongi etorria izan bite.

J. Ozerin-M. Etxebarria'nean ezkontza-eztegua. Seme-alaba bakoitza beren abian ezarri dira-ta, aitite-amamak, biek bietara, ezkonbarritan lez.

Zarrai ta gazteai, Agur onetatik ZORION guztioi.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Gure asaba zarrentzat garbiak eta argiak izandako itzik asko, belaunik-belaun eta gizaldirik-gizaldi ibilketa aundiak egin ondoren, korapildu ta trakeztu egin izan dira. Batzuk erroa galdu dabe; besteak garri-ausia; urrengoa egoak moztuta, esangurea illunduta eta nastetuta.

Guretzaz bere izango da zer esanik gero-aldiko belaunaldietan. «Arantzazu», andrazkoen izena, idaztez eta oguztez «Arancha» egin daroagu, eta erdeldunen ezpanetan bazen etxeko egin da euskaldun askorenetan bere.

Erruz eta ugari dira ezagututen ez doguzan aditz-jokoak, eta egunero miñean darabilguzanak eurak be troilluturik eta saskelik esaten doguz.

Ika edo itanoka be, gero ta gitxiago egiten da, batez bere, ain polita izanik, neskatillen eta neska-mutillen artean. Zergaitik baiña? Bake-aldia deritxan egunetan jaio, ur gozoetako bits bigunetan azi «señorito-señorita» kutsuz ta usaiñez, eta liburu-pillak besapeetan, ikasten eta beti ikasten ari diranentzak, ika egite au, baldarkeria ei da.

Baldarkeriak baldarkeri, beso ta adar onik ez kendu zugatzari. Betorkiguz AGUR onetara itanorakasleak, ika dakien lanak. Eta berebizikoena nire ustez, neskatil txanbeliñakaz izaten dituan autu-mutu eztirik azaldu nai ba'leuskigu... Aurre Apraiz izango litzakigu.

* * *

BIRIGARRO AURRESKULARIAK.—Siñesgaitza ba'da be, egiazko egia da-ta, emen doakizue:

Amaikatxo egun ederrik Jaungoikoa'ri lapurtu-ostua eta krisallu-linternaren argitan perretxikoak batzen dituan zeanuritarra dogu txorien jabea ta ezitzaillea. B. Angoitia berbera.

Birigarrokumai jaten irakatsiz gero txirulitxurulu txistu egin eta aureskua irakasten diardun gizonak ez dau izan bear eperdi-azkurerik eta belarri-miñik. Guzti au ikusi ta jakin gura dauanak Bilbo'ko udaletxetik lau zankadan dagon estankora joan bedi.

* * *

EMEN non dakarsteen Begoña'ko karmeldarren eleizan izan dan Euskal-Abestaldirako sarrera-txartela. Ez nintzan ba bertan izan da, esan be ba, gauza andirik ezin esan.

Abeslariak: **OSKARBI:** Izena bazen izatez bere garbi. Ezagunak dodaz.

OHIARTZUNAK laidanak(h) eta **HARANBURU.** Oraingo idazkera «modernistak» ain nas-turik gaitu, ez dakit oraindik okaran alea dan ala aran edo ibarren bateko goi-aldeen bat Haranburu au.

«**DEHIA**» txartela da, eta emen neu bere beste «dehia» bategaz «porvenirreko» euskera ikasi nai dauanari «dehiaka».

IZENAK ETA IDAZKERA.—Abereen adarra, kornamenta; zugatzarena, adar; turuta jotekoa, hadar; eta gizonetzkoarena hhadar.—Aber: Brutoa, bestia.—Aberetu: Enbrutezitu, bestiatu.—Aberetasun: Animalitate, bestialitate, brutalitate.—Aberizale: Patrihota.—Abestia: Kanzihonea.—Abestu: Entonatu.—Abeslari: Tonalari, tonogin.—Mailluakin, jo.—Iturriak itxasora, jho.

Beste bat arte, iri, Babel orri.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Gure gurasoen aldietan egiten zan ezkontzako erri-jai ikusgarria, inon ez lakoa, Zeanuri'n ospatu izan dana.

Ni neu, ala bearrez, ezin bertaratu nintzan, alan da be, izan dot barri ugaririk, bertakorik; baiña gure Gorbeatarra'ren mugartera sartzen, nor ausartu!

Jaiak jai, siñistu ezin alekoa, urte batetik bestera Zeanuri'n zan dan aldakuntza dogu. Oraindik oraintzu, joan zan urtean, bein Zeanuri'ra ezkeron arnasa artzea bera be naikoa zeregiñik izan. Goitik bera emonik eta zabaldurik zegozan aginduak eta betearrak zorrotzat bazen gogorak izanik, emen ezegoan txantxetan eta jolascan egiterik. Txistu, alboka, auspo ta soñu-mueta gustiak; kirolketa naiz edozelako jaiak egitea galerazorik egoan, baita auzune-jaietako txapliegoak be. Itaun ezpabere. Ozerin-mendi'n, San Justo'n.

Oneik onan, aldi baten Bergara'n izan zan antzerako besarkadan bat izan ete dan entzun izan dot. Baiña dana dala, agintaritzak eta erriak, oraingo ontan beintzat, buru-belarri jokatu dabe ezkontza-jai antzerkia atonduten.

Esparteko il zan, ezpata, domiñe ta guzti Bergara bizi da. Bizi bedi Zeanuri, oitura zarren aurrelari.

Kokoerritarren besarkada ta ekintza ikusirik, Zeberio'rako bidegurutzekoak orain ba-dabe non zer ikasirik. Emengo lokarria, burua ta soñia lotu bearreko katearen usteiak, betirako ausi izan dirala dirudie.

Erri au bizi da oraindik, eleiz-dorreko ordulariaren irudi ta antzera. Ibili ba-dabil, baiña beren zulotik uten gabe, beti leku batean. Eleizabeti'ko Mikel deun zarrak bakea egingo al dau.

Arantzazu'ko etxeakoandre geldieziñak eperdiari azka ta txango edo ibillaldiak atonduten asiak doguz. Au argitaratuko danerako or ibilliak izango dira Naparroa'ko erriak arakatuz, txistu ta tanbolin, emen aurrezku ta an arin-arin; atso tximel, agure gordin, zarrago naiz gazteago, guztiak zoro-zororik, alkarrekin.

Udagoiengo odei-tontor baltzak Gorbeitik berantza asiko eztiran arte, orpoetan arrik eta arantzarik ez da izango ibilizale ikusmikularien artean.

Gu il da gero bere zorroak errotara. Ondo izan, guztiok!

Lagun zarrak ikustera Bilbo'ra etorri...ta ia-ia lepo bete makillagaz atxeratu izan zan Eleizabeti'ko Erremon'eri zer jazoten jako?

Bere barrien begira gagoz.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

GEURE-geureak diran ikastola, aldizkari t'abarren arnasa, il edo bizi, geure bizkar datza, dago. Egapean sartu burua batzuek, negar beste-tzuek eta or konpon egingo ba'gendu barriz, erriarima iltzaille gintzakez; lan eta lagundu, da, beraz, guztion eta bakoitzaren egin-bear eta zeregiña. Ardurarik astunena ta zorrotzena gurasoak leporatu bear dabe.

Lentxoago batez, ba, ikastol-umerik ez dauan andrazkoaren kezka, zergaitiak eta zerik asko entzun izan dot. Inoan: «Ikastolatik urten besterik ez, ume ta guraso, guraso ta ume, erdereza izaten da, gure errian beintzat, lenen eta nagusi: Zergaitik, ba, lagundu, ikastolatik landa, kanpoan eta etxean gurasoak arduratuten ez ba'dira?»

Gurasoak, etzaitze txoriburuak izan. Emakume zorongoak soñerakoakaz, jantziakaz dagiana «au etxerako ta beste au kalerako» ezin egin dogu gaur egun, euskereagaz. Ikastolan, etxean, ondartzetan, jaietan eta astegun buruzurian jantzirik ibiltekoa dogularik, berarizkoa ereguz, mimoz zaindu bear dogu.

LABAYEN jaunak ANTZERKI-GAIZ Tolosa'ko barrietan «ARANTZAK»ri buruz diñona, guztiontzat pozgarri. Tolosa'raiño joan izan da, dan txikian bildur izpurrik barik, erraldoiakaz jokatutera, eta, arrokeririk gabe gizonki ta euskaldun azaldu.

Ea bada, mutillak, eldu beste bateri ta ekin arloari. Txalo bereziak abeslariari.

JO gaitu, goitik eta betik, alde guztietatik, udako eguzki kiskalaren erpa sargoriak, eta izango dogu udagoiena etorriko dan arte, Sanjoanik, Sanpedrorik, Andramari ta beste jairik.

Asirik izango dira orain ezker, jai-eratzailleak, erri bakoitzak daukana... eta ez daukana zirriborroz jartzen, gero orri apaiñetan ipiñirik, auzoai jaira dei egin-asmotan.

Gaztela-kukuaren betiko leloa berbera entzun bear ete dogu aurten bere? Zabalkunde-iragarkai guztia erderaz egiña izango ete? Zein eta zeinbat toki geureari...?

Usansolo'tik Barazar'era, Ugao'tik (Miravalles) Urkiola'raiño, jokatu daigun zur eta burutsu. Erriarentzat izan gaitezala on eta inguruetakoentzat eredu.

ORRILLAREN 27'gna ba-doakigu, arratsaldeko zortzirik oraintxe dira. Baiña goizeko amarrak-aldera, Loiola'n, biztuten asi, orduz ordu gizendu ta sendoturik, su bizi-bizian arratsaldeko seirak arte iraun izan dauan «izatezko», ta ez «izenezko» anaitasunaren lorratza beingoan ez da bukatuko, amaituko, ezereztuko.

Izan da, gaztedi ederrik: Mungi-aldeetik, Gipuzkoa'ko ainbat erritatik, bilbotarrak eta gure Arratia'tik. Gureok SASITXORI ta guzti.

Aupa Gaztedi barri! Gora Loiola! Bizi bedi Euskerea, eta Aitor'en Erri.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Iragarririk eta zeozer azaldurik zegoan bezela, eperdiarro ta buruak gora-gora, Otxagabia'rako bideari emonak zegozan, orrillarren 27'grn goizean, Arantzazu'ko etxeokandree eperzabalak eta praka ta gonadun gazte artega urdurien batzuk.

Ordu batak aldera, arnas-auspo onekoak, Muskilda'ko Ama neskuts birjiñaren baselizan belaunikoturik otoika, Maxima biderdian pot eginda, eta Karabi'ko mutilzarrak errian gelditu-bearra eukan ardauaren garratz gozoari neurriak artzen.

Zein atso deabru izan ete zan itz eztitsuz, begi-keiñu txanpalez, guzur ta azur Las Pallas jatetxeko nagusia maitemindu ebana? Sanpedro-jaietan errira datorkigunean eta Arantzazugoiti'ra begira jarriko danean... izango dogu komedirik. Artean, ba, nasai egon. Gero, or-konpon.

Jaia jai egin bear zala-ta, andra zentillen batzuk otoz-otoko ezkontza bere aguro baten eratu eben. Ezkontza «zibilla». Eta zibilla zalarik eta gizonezko bizertsuegia... mosu emoteko orduan andra ezkobarriak atzera jo. Noiz izango erdi ezkondu oncin eleizazkoa? Zeinbat lasterren izan bedi.

Goizean iji ta uju, aupak eta gorak; etxeratutakoan emen min eta an pupu. Maxima'k pandero-narruzkiña joten eskuturrak aunditu ta, iru egunean, urunik txitentzat be ezin oretu, baiña, ibiltaldi barrien baterako asirik doguz egiten kukurruku.

* * *

Emen beste bi ezkontza benetakoak, egiazkoak eta legezkoak, J. L. Iñaki deuna'ren egunez izango doguzanak.

Mari Tere Gereta (Arrati-aldean AGUR onen lenengo arpideduna) Ibarra Xabier'ekin; eta Euba'ko Munitxa Begoña, Aranzabal Tomas eibartar Arratizalearekin.

Ezkontza ondorengo egun eztitsuak, bake osoan eta bizi gozoan, Gorbea-inguruetan igaroteko asmoz dira, bi bikoteak.

Gorbaie'ko guruzpean kereizak gorrituar-teiñoko osasuna ta zoruna izango al dabe.

* * *

Ba-dogu Arratia'n bedar onik, bai-ta txarrik bere, baiña itzi dagiguzan beste baterako, agindutakoa zor dot-eta, zorra kitutu bearra dodalako.

Zuoi Arrate'n ezaguturiko gazte zestuarrak, AGUR ontan lankide jator-jatorra izaniko Sagartzazu zanaren seme-alaba, loba ta enparauai: Jaso bizute arratiar onen gorantzi ta besarkadarik biotzkorrena. Jo, gogor, aurrera begiraka, gure Maisu-Irakasleak urratutako bideetatik.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Barriztutako bizi barri batean kideko, arteko egiñik bizi gara gizon, abere ta zomorro. Erlea, durunduzko egazkadaz, eztigin-tzan; lili ta lora, usai gozo ta margoz, kolorez edertuta; neguan billoiz eta azur uts izaniko zugaztiak orritze orlegiz jantzirik. Gizona barriz, adimenduna izanik, neguan lez udan, burua jaso eziñik, lanari loturik. Guk bere ba-dogu orraitio negu-aldian izaten ez dogun alako zerbait; bizkortasuna, geldirik egoneziña, jaiegito t. a.

Lengo batez Santalutzi'n nintzalariak, IPARRAGIRRE'gaz izan nintzan, Gorospe Ander'ekin. Sankristobalak ba-datorkiezala, iñongo diru-laguntzarik ez eta... kezkatu egoan, praka estuetan.

Emen baiña, asmo ta egitaraua diru-laguntzarik izango ez ba'lu:

Auzotegiko astoak eta Basauntz'koak buztanez-buztan loturik zein indartsuagoka (bustan-tira); Mallubi'tik Loiate'ra (ura edan eta arnasa artzeko epea emen) ta Loiate'tik Santalutzi'ko eleizpera, txakur-ariñketa, txakur txikiak bi txolet buztanean, andiangoak lau, aundi kankailluak zortzi. Aramotz eta Mugarra'ko akerrik aundienez burrukaldia; Zuña'ko katar baltzen erpe-joketa, begiak atera arte. Azkenik Alandrero'ren oilloloka bi zozketan.

Auzotegi txiki baterako naiko zerikus, baiña gogoan izan oar au: Jai-eratzailleak zazpi auntz ilgo ditu eta solo-munetan txintxillikatu, eskegi. Egun guztirako bertaratuko diran jaizaleak, ez dabe arrautzopil edo tortillarik zertan ekarririk izango. Argitasun geiago auzoan bertan, Zurinaga'k.

Arriortua gazteak Euskalerra zar antziña-antziñakoatzaz azaldu euskuan edezti-kondaira entzutera joanik Iurre'n izan giñan. Entzule ugaritza aundiegirik ez gengoan, baiña danak gazteak, ori bai, zarra neu bakarrik.

Zeltak, Iberoak, erromatarrak. Ebro ta Adur ibaiak. Aldi artako ama izatearen nagusitasuna. Artzuloak, artzai-oiiturazko biziera, izkuntza, abar ta abarrik ugari agertu ta astindu zituan. Alkarizketarako atea iririkirik geunkan. Gaiak sakonak eta mamintzuegiak ziralako edo... ixillik gengoan.

Biztute barri bat dogu Arratia'n eta poz-tuten gara bera ikustean. ARANTZAK, Bizkai'ko errictan antzeztuz, teatro egiñaz gero, Tolosa'n, ezeren bildur gabe, erraldoiekin neurtu ziran OIARTZUNAK abots eta abesti eztiz Euskalerra'ko txalo beroenak etxeritzen. Iurre'n jakintza-miña. Ikastolak oraindiño txepeltxu baiña aurreraka.

Poztu gaitzezan bada. Eta ik, zekor txiki, aurrera begiraka jo gogorki.

Basauri'ko ikastolako umeak gurasoi eskeindutako antzerkia ikusten izan nintzan nire adiskide txiki-aundi Iker Zarraga'k deiturik. Alako ume pilla alan eziteko gibel aundidun andereñoak izan bear noski, nai ta nai ez. Arretatsu ta gogotsu jokatzen dabe gurasoak eurak be. Kokolo-mokoloak eta nagiak ez dira, ez orixe.

Arratia

Asketsi, parkatu begist arratiarrak, asierako lerro oneik J. Arregi oñatiar TXANTXIKU adiskide miñari zuzentzean.

Euskaldunok beti kizki ta kazka ari gerala-ta, asarre samar azaldu intzan, Arrate'n. Ez al dek ezer irakurri euskaljaiari egiñiko satorkeriatzaz? Lupu ta pozoizko maltzurkeriak ikusiz gero ere, belarriak jetxi ta ixil iraun obe ote? Ardilarrua etsaiaren bizkarretik eratsirik, eta otsoaren belarri ta ortzak makillaka puzkatuta lurean egotzita ikusi arte, or-konpon egin ezean, kizki-kazkan ari bearko, goikoz-bera jartzen dizkigutena bekoz-gora ipintzen. Beztela galduak gaituk.

Bigarren sail, arlo au Erkoles eta San Antonio'ri (Zornotza'ko auzotegiak) eskeindua.

Sanantoniotarrak erkolestarren guztiz ganetik, aspalditik, eta ni, jai-bizitasun aundiagoa San Antonio'n zala ikusirik, bertan gelditu, beste barik.

Gizonezkoak, morrosko baketsuak, arkondara zuri garbiz. Andrazkoak, umedun eta ume gabeak, landea betean, eta txoletetako janariaren aukera dogulakodet... ezan inongo etxetan kerik agiri.

Jaiaren asiera oiñezko ariñeketalarriak, korrikolariekin izan zan. Lenengo saria ta neskatil txanbeliñaren lau mosu gozo-gozuak irabazi zituana, A. Maria Bilbao. 2'grn, B. Martitegi: Neskatillaren bi mosuri, laukin erantzun onek. Osaba Mikolas'ek gaztaroan izan zan baiño azeri zoliagoa dirudi. 3'grn, J. L. Jauregi: Mosu artu-ermonean Martitegi baiño formaltxoago azaldu zan.

Jarraian erreka-zulo, munarte, landarik-landa ta bideak zear bost txirindulari alak eta bost egiten.

Lengarren, J. L. Jauregi; 2'grn, Xabier Izurtza ta 3'garrena, L. Agirre.

Epe labur bat eta, barriro bere korrikalariak, oraingoak izen aundikoak. Garaillea, irabazlea, goizean Durango'n izan zana berbera: Jaime Areitio, bernagoitiarra.

Ba-ziran txistulariak, bolari ta geiagorik, baiña orduak aurreraka ta tximiñietan gora kerik ez ikustean... ba' da-epa'da be, Etxebarri'ko mai oparoari inguru egitea erabagi, ta, alaxe egin bere. Ez gintzazan damutu. Arraioa! an zer egoan! Kesus Marie!

Ba-zan emen bere zer esanik eta zer entzunik. Teo panparroiak Ernesto'ri, Agustin eta Iñaki'ri Bernagoiti'ko pelotatokian emoniko zaputzaldiatzaz ba-eukan esanbearrik eta besondoak erakutsibearra.

Izan bere gero, Teo'ren besagain-sartadak etziran putz utsak-izan. An laga eben frontoia beetik gora arrankaldurik.

Ai, ene! Au egin dodan barrabaskeri barrabasa. Arratia'rentzat tokirik ez. Urrengoarte. Guztiok ondo izan.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Bazkal-ondoko txokor muskilduakin apal-ondokoari ta onekin biaramonekoari sua emonik, oerako be astirik barik, jaien irakiñak eta lurrenak ingurutu gaitue.

Berealdiko jai berezia, aundia, buruz atzeratuen aldez bagillaren 17'an lurre'n izan genduana.

Zuberoatar 7 gazte abeslariri ongi-eterria agertzeko, biotz beroz eta ao batez, AGUR ZUBEROA gaz jaiaren asiera

Iparreko anaien abesti-saioa belarri-gozetzaille izanik, minbera neban biotza. Ez al da munduarentzat lotsagarri, eta guretzat zaldar mingorra, Ebro ta Adur ibaien bitartean, norbere etxe barren barruan ibiltean naiz auzo batetik bestera joatean, muga-txartel, pasaporte edo dana dalakoa erakutsi-bearra? Minbera neban, egitan eta benetan, minbera biotzean.

* * *

Goren maillako Lertxundi'k, abesti ta soñuz ganera ba-eban beste zerbait onik; entzuleak obeto ulertu al izateko ekiñaldi bakoitzari aurretizko azalmena.

OIARTZUNAK, zortzikote ongi ezia, abotsez ezti ta indartsu. Mozoillobegiz gengoan entzuten, txunditurik, arnasartzea bere aitzurik. Ez dot, Arratia'n eta inguru zabalean ifioiz izango zanik uste, au lako abestalde pitxirik, eta bear leuke Bizkai'ko Edesti barrian orrialde sakon berezi bat.

Galdakao'ko ANDRA MARI Europa'n eta Amerike'tan ibillia, garaikur ta sari-rik asko etxeratua, zeñiek neurtu ta azaldu, egokiro, gaztedi onen gaztetasun, osasun, dantzaketaren tximist, eta azurgiltzetan daben biguntasuna! Bein zirudien gotzon-aingeru, bein sorgin, eta beste bein deabru. Ez dabe belaun-buru ta garran erreumarik, orpoetan bere ez arantzarik, ezta lasto ta zaputik arnasbideetan.

Plaza-gizon osoa dogun Sebas'engandik errez eta berez-berez folklore kondairarik, istoriarik asko ikasi geinke. Adibidez: neska-mutillen eskutik eskurako zapitxo zuria geyenok ez dakigun zerbait adierazoten dausku. Urrengo arte ba, Sebas.

Atzeratuen guraso ta ordu eder biren jabe izan giñanok, jai eratzaille buruaren, zuberoatar ORTZADAR, LERTXUNDI, OIARTZUNAK eta ANDRA MARI'ren zordun gara.

Amaitu zan ba lurre'ko jai, ez orraitio ARANTZAK'ren ekiña ta arnasa. Emengoz gero sama-txuntxur leortuak, egarrituak bustiteko astirik barik Urkiola'rako bideari emonik egozan.

Goi artako aize garbitan eunkadak Urkiolazalek inguru egiñik, ekiñaldi barria. Abestietan Erria'ren mami ta odola; entzuleetan txalo-jote amorratua ta, esku-gibelez, esku-lepoz begi-tantak leortzea.

Jo bada, gazteok, Erriaren bidetik. Izango dozue nork entzunik.

Ba-dogu Arratia'n, aldi ontan, orduak eta egunak non emonik. Zeberio'n gau ta egun ibilli izan dira jaiak egiten eperdiagaz lurra joarteraifio. Sanjoanetan, bere leku askotan izango dogu su eta kerik. Sanpedroak etxean doguz, Sankristobalak auzoan. Bidean datorriguz baita Santa Maiñe ta Poloni, Iñaki, Andra Mari, abar, abar eta ainbat abar.

Arratia

Aldi onetan izan dot txolarterik, astirik Arrati'ko erbarrenak arakatutekorik.

Igarotako illaren 19'an Arantzazu ta Arteaga, Dima'koak bere an izan ziran, urteriko arrentza, errogatiba egiten Urkiola'ra. Goi aretan, mezea, pagadia bera gurutz-bidea, amaiketan bizigarria ta ondoren pandero, auspo ta alaitasunaren asiera. Laurak aldera Gazteiz'erako bidea.

Gazteiz ikusteko artaldea sakabanatu izan zanean, arantzazutarrak, deabruek daukeez euki bere-ta, zer egin nai ebela uste dozu irakurle, iru-lau also gordiñek? Zera..., lenengo ikusi eben barkillero zarra sanpedro-jaietarako errira ekarri. Lenengotan mosuz eta laztanez, onez asi zitan; gero bulzaka ta indarrez.

Alegiñak alegin ez eben ezer lortu, eta sanpedroetan umeen pozgarriztat, barkillero bat bera bez errian.

Zeanuri'n bere izan nintzan, eta nork siñestu au lakorik! Manterola On Gabirel basotik zan, piñu andien baten, punta-puntan eskillasoen abia ekiala-ta, babazabal eta idar (illar) guriak txorikumai eroatera joanik.

Eneban izan urtetsu gaztea ikusterik, eta solo bizkartsuetan gora luzeturik begiak, mun baten ganean egoan nik bear neban beste adiskidea, Josu Ozerin. Arratsaldeko zazpirak ziran, eta eguerdiko amabiak ezker, atxurra goian satorraren begira, antxe ta alaxe ei egoan. Ozerin berebiziko izango litzakigu erbarrenetan doguzan satortxoak atxurrez joteko.

Auzotegietako jaiak galdurik ziralakotan, orain-diño ondakiñen batzuk izango zerala-ta, zer ikusiko ta zer entzungo Iurre'ko San Joan'era urreratu nintzan.

Eguerdiko mezan aspaldiz izan ez dan notintza, jentetza; arratsaldez Zeberio'ko neskatiltxo abeslariak, Lupe bermeotarra, Mendibil eta Ander arratiarra entzutera joanik geien batzuk, notintza andiagoa.

Guztia izan zan guztion begiko, atsegin eta entzungarri, txalogarriena baiña, nire ustea utsa ez ba-zan beintzat, Ander'en indar eta alegiñak marifatu ta gizon kirtenok euskerara zaletuten.

Ba-zan an txistu eta tanboliñik ere, baiña gaztedia, atzerriko pipiak eta sitsak zulotu dauan gaztedia, abestiak amaitu besterik ez... arri labanetara, ateburuetan euskal-izen politik eta barruan aize zikin eta usain arrotza daben ala-olako tokietara. Arrats edo posporo-burutxoak gara euskaldunok; ikutu batean biztu ta poztu, putzik txikienak amateu, itzali, ta guztia bat-batean aiztu.

Zeanuri'ko Undurraga'n, Dima'n eta Arantzazu'n Sanpedro-jaiak. Ikusgarrienak Arantzazu'n.

Bespera eguerdian txirritz-ziztada artzeko txakurren batzarra, illunabarrean lau txapliego aizean gora. San Pedro goizean iru txapliego, eta arratsaldez lau gizon beste zeregiñik gabe plazan diran bederatzi zugatzentzat soiñu joten. Lau tabernak zabalik, Gorbei-aldeko urak ibaia betean itxasoruntz, erriaren alde batetik bestera ibilli al izateko antxiñako zubi begi-bakar bat. Gaztedia Iurre'ko garagardotokian sardiña erreak jaten, eta barkillero bakar bat bera bez umeen pozgarriztat. Aizegarbitzaille, egunez, Afrika'tik etorritako elai enarak; gabezkoak, saguzarrak. Eskerrak jaietan eskua artzera beren-beregi Ameriketa'tik etorri izan zan Badiola adiskideari, bestela...

LANDAKUELA'TAR A.

Arratia

Oraingo onetan Iurre'ko Orobio, Laurkin eta Olabarri inguruetan ibilli izan naz. Eguzkitik eguzkira piper-eperdi eginda lanean, zarrago ta gordiñago, biziak ilten urterik asko emon izan dauan Burgoa adizkide zarra aurkitu dot, eta nik itaundu ta berak erantzun, autumutu edo antzerako au izan dogu:

—Zenbat urtetan bizidunak ilten; eta eguneko, batz beste, zenbat eriotz?

—Berrogeiren bat urte emon dodaz ogibide onetan. Eguneko kontua sei bat abelgorriri barrua ustu, narrua eratzi ta eskegitea izaten zan. Eta bildots denporetan, abelgorriz gain, eunen bat artxo bere bai.

—Zaldi zar azurtsurik, mando zauturik eta asto belarri-makurturik bai, iñoiz?

—Olakorik asko, eguneko berrogeiren bat, Madrid inguruetara gudaketarako eroan ninduenen, il genduzan.

—Bei bat il, barrukiak atera, narrua kendu ta zintillikatu, zenbat denporan?

—Ordu erdi baten.

—Zein abereren lana errezagoa, ta zeinena gogorragoa?

—Errezena ta atsegiñena bildotsarena, Neketsuena astoarekikoa.

—Ta zeinientzat izaten zendun errukirik aundiena ta zeintzuentzat errukirik eza?

—Bildots edo arkumearentzat beti-beti izan neban zerbait erruki; aumek ostera pozarren il naiz zatitu.

—Orrenbeste urtetan, orrenbeste adarren aurrean, aizto zorrotza egunero eskuan, ez al zenduan larrialdi ta ezbe-rririk izan?

—Adarrartean birritan larri ibillia nozu, atzamarreko ebagiak iru illabeteen laneratu barik euki nindun, eta ondoan neukan lagunak, ezjakiñean, apertxun-txurrean emon eustan aizkorakada bera bere etzan txantetakoa gero.

Jakin begie ba, ta ez bitez larritu Olabarri'ko auzokideak. Burgoa adis-kidea baten berean be ez dozuela ikusi pipa erdi erretan, astitsu, kerizpean ezarririk? Beiñolako aizkorakadaren pupua ipurdian dauka oraindik-eta; ortik datorke ezin ezarria ta geldi egon-eziña.

Emea ar egiteko pastillak bere, Laurkin'eraño eldu ete-dira? Zelan litzake bestela urruxatzat, emetzat, erositako txarria, egunetan kortatxian euki, ta Zeanuri'ko kapatzaillea txikirotutera etorri zanean, urruxa izanikoa ordotz izatea?

Laurkin barrengo bide barriztuan, San Joan arratsaldez, eskuburdi bana bedarrez beterik Olabarri'rantz joiaz senar-emazte ezagunak agurtu nitun, eta nik, «poliki bizi zaree» esateari, andreak erantzun: «Barkilleru zar bategaz ezkondu izan ba'nintz askoz obeto biziko nintzan».

Emon egiozak orri, Patxiko, azak eta porruak.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Lugiña, edonungo baserritarra, atzerakoi ta txarto bizi izan dala ta bizi dala be, makiña bat bider entzun izan dogu. Baserritar baserritarrak baiña, erdi-kaletar erdi-baserritarrak baiño jai osoagorik eta ugariagorik egiten eta nasaiago biziten bere ba-dakiala ezin ukatu dogu.

Lurreko lanetik bizi dan lugin jatorrak, ukuluko, kortako abereak janarituz geio, igandea igande egiten dakiana dogu; eta asfegun buru-zuria izan arren bere, auzotegien bateko jai-usaiñak surtzuloan kili-kili dagieanean, an izango da, alkondara zuriz eta txapel barriz, meza nagusian, gero, lagun zar eta adiskideakaz zurrut egin eta senditarrean bazkalduz, eguna emotera joanak. Gaur egungo diru-egarri ase-eziñak eraginda-edo... kaleko lantegitik eta baserritik bizi diranak, praka estuagoetan bizi dirala dirudic.

Neure begiz neuk ikusi izan dodaz, igande goizeko orduetatik gaba illundu arte —Dima'n, Iurre'n, Arteaga'n eta Areatza'n— bedarra ebagiten, ebagi-igartua metatuten, burdiz etxeratuten, arta-jorran, eta ipuztarri ordezkotzat asmau izan dan tramankuluari loturik lan-ta-lan egiten.

Dirua, jaun altsua: bideetan azkar ibiliz erriak ikusteko berebilla, uri zaratatsuan naiz izpazterrean etxe polit apaña... aundiki ametsak. Eta ametsok egi izatera biurtu bearrez, astearen zazpi eguntan kopetara, bekokira datozkuzan izerdi-tanta gordiñai zer zorrik lugin jatorraren biziera astitsuak? Dizdiz dagian guztia ez da urrera.

* * *

Erri bateko ta besteko atso briskalarien aupadak, Bizkai'an eguneroko ogia ta eznea dira. Txapelketarik jokatzetik izango ba'litz, atso briskalari amorratuak Arantzazu'n bere ba-dirala jakin begie txapelketa antolatzaileak.

Gure amonak, amamak, karteta kontuan oker barrabanak dira-ta, lentxiago batean, ixil-mixilka alkarri kartak lapurtu, txakurren bat edo beste irabaztearren alak eta bost geiago tranpa egin eta etxeratuteko ordua eldu zanean... ogeitamabi karta besterik ez maia- ren ganean.

Onei irabasteko aiña dakianak, atzazalak luze bearko, ta begiak zabal.

* * *

Aprika'n eta India'n gosca ta egarria nagusitu dirala-ta, negarra ta eskea izaten dogu atean, pitean-mitean. Eta Dima'ko Emaldi'n ostera, J. Bernaola'k, landea beera gaztaiak bilin-bolonka.

Sanpedroetan erbarrenean saltzeko asmoz egin zituan, baiña jai-ikusgarriak ikustera bertaratu zan notintza, jendetza aundia izanik, ez egoan bideetan ibilteko lekurik, eta an daukaz etxean, saldu barik.

Oba'ra bazkaltzera doanak ez dau goscerik izango, ta beratzean, Emaldi'n, gaztaia jan nai dauanak, agin eta ortzak zorrotz euki bearko.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Lenengo sail edo arlotxo onetarako, Bilbo'ko Matiko-Uribarri auzotegia aukeratu dot, eta arratiar irakurleak itaundu daikeena: «Ingurumari orretako barriak guri zer dala-ta?»

Ara bada, samaraiño biztanlez betea dogun auzune au; atean-atean edantokiak, sama-zintzur leorrak ugariegi ta gaua bein illundu ezkerero... basa-astoen arrantzak be ez gitxi.

Lanaren nekez ogia irabazten dauanak, atsendena ta indarra biaramonerako barriztatu bear dauz, eta gauaren ixiltasuna, loa ta bakea, bereberek ditu.

Gautxori zurrutalariak ezin ba bakerik egin-eta, batzartu ziran bein gauaren ixiltasun zaleak, eta gau-ertzaïn bi aukeratu ta izentatu. Gau-ertzaïñok, Bilbo'n bizi diran Arteaga'ko Endrike ta Arantzazu'ko Kele gaztea. Eginkizuna: lurrian izaten diran moskorrai jagiten lagundu, edan-berotuak etxeratu, aozabal izkanbillariak ixildu, ta amarrak-amabiak bitartean, tabernak ustu ta ateak itxiarazi. Baiña otsoak otsokirik ez ei-dau jaten-eta... beteko ete-dabe zeregiña? Emen datza kakoa!

URRUTI

Ikuskiña, gure Erri oneri gaizki ta txarto guraka egiña izan ez dan arren, on baiño kalte geiago ekarri izan dausku, orain arte beintzat, noiztik beñera naizta pozalditxoren bat eskeiñi erderaren bidez.

Iparrameriketari diran euskaldunai buruz egiñiko egitamua ikusterik ez neban izan, baiña berarekiko zertzelada, pozezko esate ta abarrik, zeinbateri entzutez, pozaren ikutua ta zirriztadea nabaitu nituan. Batek eta bestek, an eta emen: «kareik bai areik mutillak. An bai ba-dabela azkatasuna, ta gure Erri ta oiturai indarra ta osasuna emonbearra... ta abar» iñoen ao batez.

Amerika andia ta indartsua dalarik, bertan diran euskealdunak egiten dabenagatik, naiz ez dabenagatik, ez dabe lorik galduko, ta angoak an egiten dabenik asko emengoak be egin geinke, naizta emengo azkatasuna angoa baiño mirriñagoa izan. Zer da baiña emengoak egiten doguna?

Euskal-mezak oiuka eskatu, ta lortu izan doguzanean, kezkarik bage ta pastel-pastelik erderazkoetara joan. Euskal-antzerkietara, geintzuetan, betiko batzuk, eta Bilbo'n izan diranetan no-tintza ikuslerik iñoiz izan ba'da, errietatik etorritakoai eskerrak. Euskal-aldizkaririk ezagutu bere egiten ez dogunak ugari gara; laguntasuna eskeintzen dautsagunak gitxi; urte bakoitzaren buruan erderarentzat diru metak. Modea ba'litz bezela umeak ikastolara bialdu; ikastolatik at, guraso ta ume erderaz mintzatu. Euskal-abesti ta soiñuak bero-berorik txalotu; jaia amaitu besterik ez, atzerri-kiratza daroen barrutietara zoro-zororik. Urrutian, esaterako Andaluzi'ko beerengo musturrean, ezbearren bat izan danean, aiene ta oiene; Bidasoa'ren bestaldeko munan iñoiz izan ba'da... Prantzia'n izan dala-ta, or konpon. Izenezko ume euskaldunak erruz, asko, ugari; izatezkoak murri, urri.

Azkatasun eguzkiaren izpirik ba-dogu, ta illargiarena eskatzen gabiltz. Eta boikotak egiten... geurea danari!

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Joan izan dan asteko lantxoia Bilbo aitatur asi ba'neban, zergaitik ez ba oraingo onetan be, ikutuena bat edo beste Bizkai'ko uriburuarari, SEMANA GRANDE deritzan asteari? Urteokaz itunena, gaixo itxurazkoena eta motelena izan zan asteari?

Izenez bazen izatez aundi ta indartsu dan Cortes Ingles etxeari esker, aurten bai aurten euskal kirolak eta ikustekorik —Arantzazu, Arteaga, Dima— etxe-ko jaietan ez egin ta ez ikusi ezin ebenik.

Ea ba, arratiarra, zarra naiz gaztea; Arteaga'koa zarala, Arantzazu'koa naiz Dima'koa, euskal-kirolak ikustera guztiok Bilbo'ra. Euskeragaz euskaldun izatera. Errian ukatuten dauskuen Erriaren gatzia, piperra ta sena gozartutera.

* * *

Indarra ta bizitasuna gaztearenak dira, bere-bereak; eta bizi-gogoa, ostera, guztiona. Aldi onetan guztiona dan beste zerbaitik be ba-dogu Arratia'n, batez bere Iurre'n. Gaztetasun odolaren eta gogoaren itxartze barri bat.

Kementsuak eta buruz jantziak diran euskal-idazle gazteen lanak AGUR onetan ugarituz datorriguz, IRRINTZI renak geien batzuk. Zeanuri'n Astondoa dogu txori barri, Lemoa'n Aramotz II, Zeberio'n Etxebarria. Areatza, Arteaga, Bedia, Dima ta Arantzazu idazleen landan oraindiño mutua, beste bide batzuetatik baiña ez dira ketotu.

Itxaropen pozgarria benetan be, etxean dogun belaunaldi berriaren itxartzea ta sua, eta pozgarriagoa oraindikan geureokaz bateratsu GAZTE orrialdean azaltzen diran ARRANOKUMAK: Zapirain, Goirigolzarri, Arriortua, Ezkauriatza, Etxebarria, Agurre'ko Gazteak eta, une onetan gogoan ez dodazan beste batzuk.

Barrien barri abestu geinke aldi onetan, oraintxe bertan: Irrintzi bat entzun da... Euskal-baratzean, goazen zar-gazte danok... Euskeraren pozean.

* * *

Azkatasuna ala azkeria? Adan'en ta-yu-itxurazko jantziz kalean ibilli izan dan bat ertzañak lotu dabe, Balentzia'n.

Gure itxasertzetan bere ba-dago adanik eta ebarik, mallukiorri bi bularrean eta sorki zirpil bat zilborretik beera atzean loturik, lotza galdurik, erritarren ao-begietan dabillanik.

Ispasterretako ondartza-errietan baiño ez ba'litz, aragi-erakuste ta saleroste au, gaitz erdi, baiña lur leorrean bere erroak emon ditu eta baso-mendietan ugaritu.

Ba-dogu azkekeririk balentziarrak ez daukenik.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Amabost eguneko opor eta ixilunea-
ren ondoren, indar barriz eta kementsu
argitaratu izan dan 101'grn. alea ira-
kurtzeko zoruna izan dogu, asteroko
onen aide ta senditarteko garenok. Nork
sifneztu aulakorik, etxeko etsai ta are-
rioen artean jaio izan zan umeak onen
bestetan burua agertuko ebanik!

Nasaitu gaitazan bada, eta ertzetik
ertzera begiak zabal-zabal egiñik, eldu
eta ekin irakurtzeari, sarriegitan azal-
tzen garen bezela agertzerik nai ez ba'
dogu, batez bere erdeldunen aurrean,
tentel, kokolo, ezjakin eta lotsagarri.

* * *

Emen izan naz, aspalditik, Santa Lu-
tzi'ko barrien begira ta zai, Gorospe'k
baiña idazkortza baiño kitarra maiteago,
eta gaur egun ikusi, entzun eta izaten
doguzan makurkeriak erri entzuleari
abesti-bidez azaldu naiago.

* * *

Dima'ko goi baten, Artaun auzotegi
intxaurrondoz bete-betean, eta ementxe
nire adiskide mami-mamia, zeinbat egun
eder eta ainbat arkoloka egote gozo Jain-
koari lapurtu ta ostutakoa.

Neguaeren biotzeko San Bixente otza,
uda gorian ospatu, eta kaletar goseakil
geiegi bertaratuko giñala usterik, gure
Jildo mututu; jaiak amaitu izan dira-
nean nagiak eta alperrak artu.

* * *

Biurtuko ete da Artaun izan zana iza-
tera? Udaldi luze ta neguan egunik asko
goi artan igaroten dituan bilbotar batek,
artalde ipiñi-asmotan, aari baten, arito
baten jabe egin da. Au munduaren al-
drebesa, jatorrizko artzaiñak basoari ta
mendiari igesian eta uritarrak artzain-
tza zaarrera.

* * *

Artaun'go landan jai-usaiña ta janari-
lurruna zanean, emengo Zuazo'tarrak
ugaritzen Lemoa'n. Isabel'ek P. Mari'ri
ume barria ekarri, eta ugatzatzean, ba-
teatzean Anartz izena imiñi. Zorion ba,
eta ondo izan, guztiok.

* * *

Zeanuri'k lurrez neurri zabalak, au-
zotegirik asko ta ederrak. Erriburua
txikia, batua, biribilla, Taberna edo eda-
tetxeak bost besterik ez, ardaua baiña
indartsua, begi lausotzaillea.

Goizaldeko lenen lau orduetan, au-
rrearakada ta atzeraka, ezkerreara ta es-
kumara ebillan Orbetsu'ko semea, itzi
eban toki artan geldi-geldirik egoan be-
rebilla ezin aurkituta. Olakorik!

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Gure menditarte sakonean barri gitxi. Arantzazu'ko gaztedia, Ondarroa'tik, itxas-kresal eta aizez narrubaltz eta erdi tximel etxeratu da.

* * *

Iurre'n, zeruetatik otoz-otozean jatsi ba'zan lez, goizetik gauera, endore edo alkate barria. Erriari on andia egiteko izango, ala erriak izan bearko beraren endore barriaren onerako? Auteskunde bideak nilako zarrentzat ia-ia aizturik, eta belaunaldi barriak ikasi barik daukazalarik, arazo au alde batera itxi obe.

* * *

Emen izan naz lengo egun batez, oporketa ondoren etxeratu izan diran lagunekin. Autumutuaren muiña ta gaia Goiz-Argi'n eta Agur'en oiñarritu genduan, idazle bakoitzaren joka-bideak eta lanak arakatu ta aztertuz.

«Agur» onen lenengo orrialdean, ezkerrean agertzen diran idazlanak ei dira errezenak, irakur-erretasun gitxi dauan bizkaitarrarentzat. Nik neure aldetik beste au gainerratu: arlo orretan, sail ortan izaten dala, irakurle zorrotzarentzat mamiñik.

Aize ustel eta eguzkirik ezak sortzen dituan sitsa ta pipia il eta, txomin-bedarra galtzeko, berebizikoenak, Amele ta Arenaza. «Ezpalak» elebarriaren egillea, Uxola bere, Amele ta Arenaza'ren arteko egin genduan.

Kamiñazpi, gipuzkeraz naiz bizkairaz, itxasoz naiz leorrez, maixu irakasle andia. Ozkin getaritarra barriz, itxasgaietan batez bere, neke-eziña, kirio utsa.

Paulin'en euskerea, bizkaieraz, gozoa eta osoa.

Loiola'ko batzarra ezkeroz G.-Argi'n eta Agur'en Basarri'k azaltzen dauskun euskera errikoaia zeñnek ondu! Aitz-zirristutik, bitartetik jaioten dan ur gardena emoten dausku, erri xeari, apalari.

Lasa'ren euskera berezia, Abeletxe ta markiñarra. Agirretxe, Zubikarai, Basajaun eta barruti garbiko diran idazlerik izan zan gure ezpanetan. Idazle ugaritasun andia dogu-ta, tokirik ezagaitik, ezin ba aitatu ta izentatu guztiak. Parkatu.

* * *

Euskalerriko morrosko ederrik, indar eta kirolrik izan dogu Bilbo'n, Gipuzkoa'tik, Araba'tik, Naparroa'tik eta Bizkai'ko erri askotatik. Leiaketa eta indar neurtze guztiak danen atsegin eta begiko, eta euskal-kiroletan nagusi izanbearreko euskerea... txokoratuta.

Azalpenak egiten ari zanaren amar-amabi euskal-itzak, ekiazala ala minga-ñak irrist eta laprast egiñik, ezjakiñean esan ete zituan?

Erantzunaren begira gara.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

OSASUNAREN billa batzuek, andikeriz agertzearren bestetzuek eta ibilzaleak auzoerriak ezagututeko asmoz, nor dogu gaur egun, oporralditxorik daukanik, erriz aldatzen ez danik?

ARTEAGA'KOAK eta Arantzazu'ko umetxuak be, gure menditarteetako aizea naizta garbia izan, kresal-aizetan egunak emotera joanik, Saturraran'en izan ziran, bakez eta pozez, neskatil-mutil zaintzaleen ardurapean.

ANDEREIÑO soiñulariaren zeregiñetariko batauspo-soiñuz boga-boga jotea izaten zan; eta aurrak, umeak au entzutean isats bana, iñarra bana eskuetan arturik eta lurrean ezarririk, garratz eta gogotsu arraunketan, ipur-txuntxurak gorritu arte.

Etorriko dan urtean motrikuarrakaz joko bitara neurtzeko irrintzika dira, oraintxegandik. Lenengo jokaldia itxasoan izango; bigarrena Arraba'ko landan.

MOTRIKU'N, Ondarroa'n, Lekeitio'n, Bermeo'n..., itxas-kresalik eta besterik bere ba-da bertaratuten diran udazale erdeldunak oraindiño garaitu ez dabena: izatezko euskal-kresal bizi-bizia, giro euskalduna. Gernika'k osterera zera, areitza, oni dagokion edesti zarra eta... besterik gitxi.

UME BARRIA.—Ugutzatzean, bateatzean apaizkilloak umearen aitari:

«Adizkide ta lagun zarrak garen ezke-roz, bateatu bear ba'da... bateatuko dot, baiña... umea amazortzi urteko izan baiño len ugutzatzea lelokeririk andien bat egitea da».

Kaixo, lagun! Eta amasei-amazaz-piko oillandatxoan autortza entzuteatzaz, zer barririk?

Eleizaren kerizpean, ikastoletan, euskera-alorrean, erri-kutzusko jaietan... ba-dogu luki maltzurrik.

OZKIN idazle aspergaitzak neri bialduriko gorantziai, nere aldetik agur ta erdi.

Erromillo beti-gaztearen «Arrate-ar-gazkia» jaso dot.

Eskerrik beroenak lagun zar maite orri.

Jose Lasaren lana, labetik arakoa, lagun dot. Eta Uxola'ren SUGE GORRIA nai nuke.

Ez aztu, Uxola, Larra'ra (Larrea'ra) etorriko aizenean.

Arratia

AURRERAPENAREN ONDORENA

Bilbo aldetik etxerantz etozala, Usansolo'n, be-rebillen otoz-otozko alkar jotean Areatza'ko sei gaztek bat-bateko eriotza.

Il onen zortzian jazo izan zan ezbear mingots au eta amarrean, arratsaldez, gorputzillen erriratzea. Ixiñurritegia zirudian izugarrizko notintza Areatza'n izan zana, sei gazteri azken-agurra egin eta illerrira laguntzera.

Eleizan eta inguruetan arnasa artzeco bere etze-goan leku egokirik, eta Mendigane'rako bideari emonik joan nintzan, bakar-bakarrik.

Ormaz ezitutako barrutia, aberats, txiro indartsu, makal... guztion barruti ixil baketsua aurkitu dot, ateak alderik-alde zabalik, eta atearen alde banatan aulan idatzirik: EMEN ASTEN DA ONAREN POZA. EMEN AMAITUTEN DA OKERRAREN ATSEGINA. JAUNA, VILLARO'KO GURE ANAIOK ZUGAN BETI BIZI DAITEZELA.

Illerrian, ezker-aldean, sei gorpuren begira zulo bildurgarria aoa zabalik.

Illobi ta gurutzai begiraka ari nazala, aterpeko

illobitegian, lau azken-lotoki euskaldun aurkitu: Lamikiz-Ajuriaetxebarría'tarrena, Bizkarguenaga-Iza'tarrena, Astondoa-Sopelana'tarrena eta Etxebarria'tarrena. Amuriza-Kortazar'tarrena erdizka, euskeraz eta erderaz idatzirik.

Ba-dakarrez, eldu dira, negar-zotiñez ingurururik lurraren erraietara, eta antxe izan dabe millakak biotz minduren azken-agurra ta otoi berorik.

Guraso, senditar eta aideen biotz urratuetako oiñazeak begietan bor-bor dagie; bertaratuak samirnez; eta lorezko ustaiak il-usaiñez. Illunabar nabarra Areatza'ko illerrian.

Gizonaren asmakizunetatik sortzen diran aurrerapenetan, gero bere izango dogu atzerapen eta negarrezko egunik.

Ezkil-jotez aizea urratu barik eratuta, ikasguraren eta jakinmiñaren deiari erantzutera etorririk izan da, lurre'n, buru argidun gizon ikasirik, euskal-literaturatzazko, marxismoatzazko ta zeinbat gai geiagotzazko itzaldirik.

Entzuleen artean ba-ziran alako ipar-izar dizdiratsiak, intelijentziaren argi ta iturriak (intelektualak), jostorrazak eskuan, izlariaren ezpanak josi ta mutu-arazoteko asmoz, baiña, katuak jandako mingaiña besterik eztzan agertu, batez bere marxismoari buruzko gaietan.

Ba-ziran arteko, bai-ta be, lo-itxurakaz, keiñu maltzurrez, irripar ganorabakoz labea otzitu-asmoa kolkoan izan ebenak. Itxuraz baiña, lotza pitien baten jabe gara oraindiño-ta, bakez egin zan egin-kizun guztia.

Zaratamo'ko gazte jatorra be emen izan gendun igande batez, eleizako atarian, euskal-abesti-gurpillak, txirrinkak, eta euskal-irakurgaiak saltzera etorririk.

Erriko gazte batzuen laguntzakin uste izan baiño pillo andiangoa saldu eban.

Etorri ba, Zaratamo'ko gazte, gogoia daukoka-nean lotiak ilxartzera, gosez diranak janaritutera eta egarberak asetutera.

Eta ik, belaunaldi barriko zekor txiki gogor orrek jakin begik. Erria ta erri-arazoak nondik eta nola dabiltzazan jakiteko, biderik egokienetariko bat irakurtea dogula.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

GORBEA INGURUETAN

Arcaatzatarrak praka zarretan zati bariak naiz abarketa zuriz eta gabardiñaz jantzi, erria atondu ta txukuntzen betidanik zalctasun andia; ta emendik datorkio Arrati'ko ibar onen «izenezko buru» izatca. Bada, ba, pletatoki ederrik, lorategi politik, igeritegi ta beste zerik.

Mendi-apainketeari emonik orain, Pago-makurre'rañoko bidea egitiik dago, ta egiten diarduen zelaigunea amaiturik izango danean, an bai an ikuspegi, begien betegarri ta, gorantzakoan naiz berantzcan, atsedentoki.

MENDIETXEAK?

Etzauntzak? Txabolak?... urterik urtera ugaritzen, eta Pago-makurre'n barriz, alkarrren ondorengi, urbillegi bata besteari baso-usaia kentzen dautsolarik. Basoak eta mendiak berarizko izatea ta bakea galdu ez daguezan baiña, beranduegi baiño len esnatu dira, itxartu dira arduradunak.

Ettxeren batzuetan ikusi izan doguz jabearen izena, ta euskal-izen bereziren bat bere bai, ateburuan. Onez ganera, toki naiz inguruaren izena bera bere begi onez ikusiko leuke mendizaleak.

Gorbea'ren aldamen eta ingurumariak urtsuak dira. Bada ur-negarrik, latsiturri, urbegi ta abarrik. Aldi onetako etxegintzak eta urbegietako ura odi bidez etxeratutcakin, izango etc dau mendizaleak eta basabercak, gerorantz, ur gardena non edan eta egarria non aseturik?

ARRI, abar, lur eta zoizko artzain-aterpeari, txabola deitu izan dautsogu alde ontan. Gaur egungo etxetxuak guztiz besterakoak eta, oneik here... txabolak!

Baserriari buruz argitaratuten dan aldizkarian, inoiz azaldu izan dan Maskellu adizkidearen etxea dogu, Gorbea'n eta bertako bideetan ezker-eskumara egin diranetan, erdugarriena. Ta, zio ta errazoi andiz minduten dira Maskellu'ren belarriak eta odolak irakin, etzaguntza barriari txabola deitzen dautsoenean. Asmatu bearra dogu, lendik ez ba'dogu, izen egoki bat, erdereak aurrea artu ta jan ez gagezan.

A EGUNAREN EDERRA

Inguru aretan emon genduana, tontorretan beera lañoa bilin-boloka illunabarrean asi zan arte.

Etzaso'ko seme P. Intxaurreaga zebberioarrek eta Mari-Agustin Arantzazu'koak dan-

zaldi ederrik eskeindu euskuen, biak bietara egunari ta mendiko bakeari agur egitean. Eta azkena emotean Gora ta Gorak aizcaren egapean azke ta egazlari.

Pagomakurre'ko zelaiguna barrian, 69 be-rebil ikusi izan genduzan.

ZEANURI

On Gabirel Manterola Errioxa'ko mastietan izan da masbiltzan, matsa batzen. Muttilzar kirtanak 150'etik gora dira, ta neskazarrak... Gorbeitarra adizkideak esan bearko.

ARTEAGA

Lengo goizalde batez, garratz eta arrorik oillararak kukurrukuka, eta gauezko eltxojatea egitiik saguzarrak zuloratu ziranean, aitia karta-jokolari tabernazale gordiñak, beatz-puntetan ixil-mixillik, etxerako bidean.

Barri zeatzaigoak, Ezkerra Foterie'koak.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Idazti Deunak diñosku: Jo eban Moises'ek arrian eta ura azaldu zan bat-batean aitzirriztutik, bitartetik bor-bor, Erri egarberatua asetu ta asarrea baretuteko.

Iurre'n eta Arteaga'n bere izan dabe uda onetan egarri gorririk, baiña ez Maisis'ik, erritarren urik ezagaz eta egarriagaz arduratu danik.

Leorteak ba-ditu orraitio bere zerak, alderdi on eta txarrak. Aitatutako bi errietan ardaudunak iñoen: Iñoizko udalditan baiño ardo geiago saldu izan dogu, irabazi... iñoizkorik gitxien. (Urik ezaren ondorena).

Zurrut-zaleak aulan: Iñoizko sekulaten arda lodiagorik, gorri-illunagorik, indartsuagorik eta gozoagorik errian, ez dogu izan. Agortu bitez, beraz, iturri ta ur-negar guztiak.

Eta zu, irakurle, noren aldekoa zaitul, zurrut-zaleena, leortearena ala Moises ez diranena!

* * *

Txolarte ta astiarte andiak nebazan-ta, bannenbillan ba, ibilliz, auzorik-auzo lagun zarrak agurtzen. Jo neban Iturtza'ko txokarrora eta antxe aurkitu Ernejildo etxeguna arto-soloaren ertzetan txondorgintzan azkonarrak izutu ta uxatzeko. Ba-zan an gomazko abarka zar, prako urraturik, txapel koipetsu ta arkondara zuririk, paparrak ardauz gorriturik.

Ez uste gero, irakurle, Iturtza'ko errikidea edozein lakoa danik. Ez orixe. Orain baiño gazteago izan eta Bilbo'ko nasan, mollean lan egiten ebanean indartsuetan indartsuena bera izaten zan... bazkalontxokorra ta beroa beragaz izaten ziran arte. Bera izan zan azokatik, feriatik umstarako, urrua zalakotzat. txarri ordotza etxera eroan ebana. Berak eukan errian izan danik idirik andiena, aldatza bera etozala eurite andi batek emon eta eperditik ito yakona.

* * *

Garakoi'ko Surmotz eta Larrea «eleizatik» ziran eguneroko «otoitzaldia» egiten.

Basarte'ko Gondra errekaeren ertzeko artotzan, arratoitzarrak artora asi dirala-ta, oneikaz murmur eta burrukan.

Elexalde'ko ulemotzailleak ezkondu zan ezkeroz, surra meago ta okotza zorrotzago. Bertan ikusi nebana nork siñestu? Motzaillearen buruan beera, atzaldean, basabeorraren buztana lakoxe ule luze ugaria. Aurrean ezarririk eukanaren buruan, Emaldi'ren illargian zer kendurik ezeukan arren, guraizekin, artaziakaz kizki-kazka eragoion.

Dikantxi ta J. Olabarri ezkonbarrien ezpanetan irripar-iturri ezta. Maite Artabe ta A. Petralanda urrillaren 20'an ezkontzekotzat doguz. Egun artan Kresen'ek izango dau bertso esanbearrik.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Ementxe nengoan arantzazutarren eta arteagatarren (bitzuek batean) 4'gn txangoa izan zanean. Goizeko urteera lakoxea, bizia ta gogotsua, illuntzeko etxeratzea. Guztiak osasun oneko. asperturik iñortxo ez, eta etorriko dan urterako amets barriak egiñez itzuli ziran.

Osagilleak izango dau zeregiñik eta zerik kukuak barriro kuku egingo dauan arte, udaldian baiña atso-agurak gazte-gordindu eta gazteagoak (andrazkoak batez bere) mitxeletatuten diralarik, iñon ez giltzaperik emengoen gogaro ona ta Euskalerra ezagutu-naia lotu al dauanik.

Berebillezko ibiltaldien eratzaille ta buruak ondo bere ondo daki, zurzurra da-ta, erriak eta auzoak nolan alkarrenganatu, asarrerako zirrikituak zelan esitu eta ate bakegilleak zabal irikitzen. Eta umore onaren garrari bizi-bizirik irauarazoten.

Aurtengo azken txangoa zala-ta, deabruaren buztana lakoxe zerbategaz, metxa luze bategaz biztu eban jaia, amama bertsolariak.

Egun aretan curia zan goian-bean, jausi alean; kokildu baiña iñor ez. Bakoitza beraren etxean orain, txarriak loditzera emonik, eta San Martin aldia etorriko danean, barriro bere izango dogu jairik, negu-jairik; txitxi-koipe-tsu, odoloste, odolki ta besterik.

Gora Arantzazu, Arteaga, Arratia. Bai-ta be Luziano Elexabeti'koa.

* * *

Eleizaren kerizpe osasungarriaren babesean cuskera ikasten diarduen umetxoai egin-dako dei zirikatzaillak izango etc dau neurri osoko erantzunik?

Lurrez, urez ala aizez izango danik ez dakigunarren, etorriko dan udaldian iru eguneko txangoa (eskursiñoa) izango dabe, erri-rik-erri. Saririk berebizikoena umeentzako, oso erreza eskuratzeko. Euskerarik geien egingo dabenak joango dira, eta arloteak, etxean egon bearko.

Bekaitz edo inbidiarik umeen artean ez izateko, ez gurasoentzat asarrebiderik, gurasoak eurak dira umeen eziketatzaz geien arduratu bear diranak. Ez izan ba, gurasook, Arantzazu'ko plaza-buruan doguzan batzuk lakoak, etxeko umeai itz erditxo bat euskeraz egiten ez dauksen baserritarrak lakoak.

* * *

Arteaga'n erriburuko jaiak potu egin eben ezkeroz, clexabetiarrak kukurrukuka, «emen gara gu».

Mikel Deuna'ren egunez bertaratu ziranak izan eben arrera txeratsurik, eta auzoetako umeak txurroak jaterik.

Gora Mikel Deuna ta Elexabeti. Bastertxo orretan zeuok erriko nagusi.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Ikastaro barria asirik orain, zer dogu Arrati'ko ikastolatza barririk, Iurre'koari buruz geien bat?

Ikastola-arazoan, erakuntzan eta antolaketan buru-belarri ari ziranak, urduri ta kezkatu lentxoago baten. Oraintzurik onuntz burua zantzunduten asi izan dirala euskaldun lekaiameak, ezin ukatu dogu. Ezin ukatu dogu ezta, beste zer au bere, santu usaiñez eziak izan diran arren, biraurik gabeko izkuntza ahal gozoa ez dabela iñoiz ontzat artu, eta, bai betidanik bastertu. Iurre'ko lekaiameen etxetik zetorren aizea bere, urte askorik ez dala, biurria ta zatarra zan

Gaur egungo legepean ez litzakioe lan biguna izango irakatsi-lanagaz ogia aoratzea, eta eguneroko ogiak beartu ei-ditu beste batzuek antolatutako ikastola ta ikastola-zeregiñakaz jabetzera. Eta orain, ipar-aizea izan, naiz egoaldeak putz-egin, itaun au nagusiturik: «Izango ete-dabe euskera irakasteko bear dan arreta eta gogo onik, gogo sakonik?» Emen datza, au da ba, kezka ta artegatasunaren oiñarria.

Ez gaitez an oraingo geiegi larritu, zur-zurrik arduratu, eta bedar txarrik erneko ba'litzakigu... atxurra eskuratu bearko.

* * *

JAKINGARRIAK, asteroko onen irakurleentzat:

Erriarentzat biotz oneko ta ur gardeneko diran Euskal-Idazleen Bazkuna'ren sortzea izan zan, Loiola'n, Urrillaren 12'grnean. Neke ta zeregin andiz sortu izan dan bazkun oni, bakoitzak al dauan neurrian, lagundu bearra dogu.

* * *

Aldapaberan datorkigun urte barrirako egutegia bere, egun bakoitzari dagokion orriekin ornitua, jaio da; laztan egin neuntsan eta etxera ekarri. Salneurria 35 pta, eta eguneroko orritxoarena barriz, lurretik jaso gura ezaz bertanbera itziten dogun txakurrandira ezta eltzen, irizten.

Giputz-bizkaierazko batasun-ikutan egiña dala dirudi. Aditz (verbo), izen eta abar euskera-euskeran, ikasi ta jakin bear dogun erri-euskeran. Noiz eta non jantzi ez dakigun soin-jantzi naskagarririk (H'rik) ez dau agiri. Izango ete euskal-sendirik, biotz eta odoldunik, sukaldeko epeltasuna ukatuko dautsonik?

Neskatil zoli-bizkor-gizonezko gazte bulartsu; arduratu zaiteze beraren aldeko zabalkundea egin eta tokirik egokienean leku egiten. Azalean areitzorriduna da.

* * *

Antxe, Loiola'n, ikusi genduan baita bere, «Redencion» deritzan aldizkaria. Kontzientzizko erri-orraziakin orrazketa zorrotza ta zeatza egin dautsoe oraingo ontan.

Sasirik eta asunik ez dakar, zorriak eta lapazorriak ondatu dira. ZORION!

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Jaia jaiaren ganean udaldian, sanfaustoa-kaz amaitu dira aurtengo Arratia'n. Arantzazu da azken jai onen erri eta toki.

Gorbea'ren errailetan sortzen diran urnegar eta iturriaz, eta bideetan bera onci alkartzan jakezan urakaz erdibiturik erriska au, ezker aldean enparantza ta eskubian eleiza.

Enparantzan udalak ekarritako musika ta soinu, inor ez bertaratu, ingurua antzu. Agintari ta gaztediaren arteko etenaren eta bat etorri ezinaren ondorena.

* * *

Ikastolen aldeko euskal-abestien deiari buru-belarri eginik, erri guztia eleizaratu zan, eta ainbat eta ainbat lurre'tik, Arteaga'tik, Zearuri, Areatza eta Dima'tik. Eleiza izan genduan ba, ikastolen aldeko jaiaren leku baketsu ta abitxo epela.

* * *

Abeslari ta soinuari bakoitzari, jai osoari buruz azalpenak egiten. Sebas izan genduan, eta lenengo abestian Patxo'ren abesti belarri asebetegarria. Emen izan ziran baita OIAR-TZUNAK bc, eta itxas-kresal pitxia, Lupe bermeotar txoritxu bizkorra. Onein izenak aitatzean goragarri guztiak esanik dagoz.

* * *

Bernaola neskatil lerdinak auspo-soinuaz lagundurik, erri ontako lau alaba, lenengo aldiz, errikideen aurrean. Atutxa'tar M. Lourdes'ek, Arkotxa'tar Alazne'k, Etxebarria'tar Itziar'ek eta Goikoetxea'tar M. Kar-mele'k nagialdirik izan ezean, arantzazuta-rrak nori entzunik izango dabe aurrerantzean.

* * *

Emen Mendibil bere, biotz eta arima, azur ta zur. Eztarrian ez dauka gaixorik, kitarraren ariari non sakatu ta musikitarrari zelan eta non putz-egiten ondo ikasia.

Jaia amaituz gero, goizoillanda begi eder biren jabeak inostan: «Lar benetan abestuten dau Mendibil'ek. Noiz ikusi al izango, guk, irribarretxu bat bere ezpanetan?» Jakin begik ba, adizkide, ire irribarre gozoaren begira bizi dan begi ederdun neskatil bat Arrati'an ba-dala.

* * *

Zuñia'ko morroskoaren lagun kutuna entzuleen artean izanik, eta Ander'ek, nire ustetan Mendibil'ek baiño malizi gaitzogo, maitemindua abesti gozo-eztia eskeindu euskun. 3'gna, euskereari ta Erriari.

* * *

Emen orain Elexabeti'ko Maurizia panderoakin, Leon albokariari lagun egiten. Maurizia amamaren eztarrian sardin-azurrik ez egoan. Amama osasuntsuaren atzamar zolien ikutuz eta igurtziz zenbat narrozkin urratuak eta zuloak izan diran ez dakigun arren, zuri gaitzogo, etorriko dan giza-di barrian jayo ta azia izango dan gaztediak izango dauala jaiak nork alaitu eta panderoari, narrozkinari autsa zeifek astindu. Eta zein izango ete, Arrati'a, Leon'en jarraitzaille? Ez ete dogu izango bularrarte zabal eta bularraupo indartsudunik, albokari barririk?

* * *

Basauri'ko Basozelai'ko Larrinaga'tar Iru-ne'ren eresaldia oso atsegina. Besartean luzetia-burtxe eta eskubian izan zalarik, asteroko onen GORAK eta txaloak bakoitzari ta guztiai.

* * *

EZKONTZA.—Urrillaren 20'an Artabe'tar Maite, Petralanda'tar Andoni'gaz. 24'an Landajo'tar Pili, Mungu'ko Garmendia'tar Joseba Elias'ekin, Azilla'ren 3'ganean. Artabe'tar Bego, Dima'ko Xabier'ekin.

Jaso begizue AGUR onen ZORIONIK gartsuenak eta biozkorrenak. Ondo izan iru bikoteok.

MOTRIKU'tik nire lantokira noizean-bein etorten dan adizkide onak eman didan agindua, AGUR onen bitartekotasunez Euskalerriari ta Iudian diran euskaldunai jakina.

razotea, au da: Motrikuar jatorrak beko lekai-metxoekin, mojatxoekin zorretan dira. Egitan ere zor aundia beko lekaimenganako zorra, eta zorra aifako aundia motrikuarren poza ta esker ona.

Beko lekaimetak esatean goikoak ere badirala dirudi-ta, alaxe izan ere. Goikoek, euskereak eraginda baiño, geiago ogiak eraginda, euskera irakasgintza zati bat etxeratu. Bekoek, eskuzabal eta biotz onez, teillape zabala, ikastola izateko eskeindu eta emon.

Motrikuarren pozak eta itxaropenak iraun bedi, Jaun Altsu Bakarrak beko lekaimetxerri lagun begie.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Ba-zan aldi baten, Arteaga'ko Elexabeti'n «TXURRO» ezizena eukan bat, etzan txurrerua baiña, eta ezizena, zeredo-zergaitik, mutikotatik gaurdaino lepoan.

Auzotegian, aizea orain beste alde batetik puzka; len izenezko txurrerua, eta orain, ia-ia, izanezkoa, izatezkoa.

Mikel Deuna'ren eguna jai nagusia Elexabeti'n, bertaratu ziran umeak izan eben txurro-betekadarik, eta egin-ontzia txikitxua ta zarra izan ez ba'litz, izango zan an, koipetan ipintzeko lain txurrozkin gozorik.

Zeregin barri onetan jaun eta buru Iturria'ko semea dogu, andrazkoak inguru... guztiakaz ondo konpondu.

Lengo baten bada, errezago ta ugarriago txurroak egin eta, erriko jai nagusiari ganetik egiteko, eta asmoak asmo, izan dau ifion dan asmakizunik, rusitar eta amerikarrak izan ez dabarik. Eta egiñik dauka tramakulu barria, makiña barria.

Tramakulua gaztaiñondo zar urte-tsua ta barruarroa da, antziñako urteetan Laureta'ko erlategian erlauntza izandakoa, 25 kilo urun-ore artzeko aiñako kolko arroa dauka.

Azillaren lenengo egunetik (Domusantu) Epallaren 19'rarte izango txurroaldia, eta Otsaillaren amalauan, maiteminduen egunez, paitar gozorik bere izango da.

Gaztaiñarik ezarren gure alderdi onetan, ba-da garirik Araba'ko zelaietan; eta arabarrai ta Luziano'ri esker, izango dogu, ba, zer janik neguko igande ta jaietan.

* * *

Ifioiz bai gertatu iñongo aldetan, Arratia'n jazo izan diranak?

Ba-zan gizon bat beatz txikian baba edo maskurrua, kallu minberrea eukana, eta geiagotan miñik ez izateko zer egin ebala uste dozue? Ba, zorrotzakin beata eperdi-eperditik ebagi-kendu, ta gero, osagilleagana joan.

* * *

Gizonak, eztulka, etena (hernia) baiño beste miñik egiteko arriskurik bai? Ba-dogu bat eztul-etztulka iru sayetsazur ausi dituana. Beste bat bere bai, kaltzerdia oiñean sartzean beatz bat biurtu-ausi egin ebana.

* * *

Kirkillak, txirritxirriak neguan baiño gitxiago jaten dokan orrek, zertarako ipiñi agin eta ortz barriak?

Ardaua irazi ta gozoago egiteko. (Garakoi'ko adiskidearen erantzuna).

* * *

Nerekin ditut Muniategi'ren lana ta Ozkiñ'en eskutitza.

Arratia

Nondik eldu gaur astean-asteango zera egite oni?

Arratiar abeslariak, OIARTZUNAK, prantzes-buztarpeko erritxoan, Sara'n izan ziran lengo egun batez. An izan zan Gipuzkoa'tik OSKARBI, an ainbat abeslari, txistulari...

An izan ziran ezkeroztik, egun mordoskada joanik; alan da ze, barri berandutuak garrantzia galdurik. Goazen baiña goirik-goi eta adarrik-adar.

Erri entzulea aoa zabalik jo-ta-keezko txaloz esku-kolkoak gorriturik, jai-giroa beroberorik. Ospatu izan zan egunari aupak eta indarra emotera bertaratu ziran gaztetxoek batzuek non ikusi an lakorik?

Kurutzadun eun margotsua aizearen putzakin firi-firi, gazte barriak berari begiraka adi-adi, biotzez otoikoa, mingaiñez kantari. Egun ortan Sara itxaropenaren kabi, geroaldiaz ameslari.

* * *

GORBEATARRA barriemoilleak, solo-emaitzak erritik aienatu, aldenduko yakezan bildurrez-edo... ezer ez esatekorik. Txarria aundi eta gizenik, ganbaran sagar eder usaintsuak, arto ta indaba metaturik.

Alperrik sabiltz ixilka, Prantziska. Olabarriko errotari zurraren maillu zorrotza entzunik dogu ba arriari kiski-kaska. Gero-txoago arriak uraren indarrez jira-bira eroso, eta azkenez... lebeigarra askara, zozo-zozo.

Aurtengo neguan bere izango dogu, Jauna'k nai ba'dau, talo ta txitxiburduntzirik eta morokillezko aparirik.

* * *

Poztu bitez piñudunak. Ingia egiteko, gaurregun bear dogun aiña papelik egiteko, Europa'n ez ei-dago basorik eta, ingigai serbitzariak Kanada'tik eta ipar Europa'tik oarka asiak dira, gorakada izango dauala piñuaren salneurriak, prezioak.

Ea ba, piñuz eta txaraz, otaz eta sasiz itsutuak izan diran oyan eta basoak, azkonar eta azerien gordelekuak, izaten daben argialdi andi bat.

* * *

Etxekoandrearentzat bere ba-da barririk baiña... ez pozgarririk.

Goizean-goizeango akeit-esne-gozogarriaren urritasuna agiri dala-ta, aizea gorantza puzka datorkigu. Arrorioak egiñik dauka berca, besterik zer bear dogu? Ez gaitzala geigiz larritu.

Etziran bada, landa ontan lanean ari diran jaun arduratsuak udan batzartu, gorakadai neurriak artu eta inguru guztiak leitu, izoztu?

Bakoitzak ikasi bearko beraren garria noraiño estutu eta nolán naşaitu.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

GORBEA'tik aldatzetan bera, arrapaladan, txillibituaren eta txistuaren otsa jatsi izan da berengo barrenetaraño, aize leituagaz batean. Tanbolintxoa zeñek joko orain?

Baseliza ta meza. Aldaminpe ta Aldamiñazpi. Etxea ta etzea. Lemoatarren etzauntza ta beragokoak mezatara joan etziranak. Ur garden, ur zikin eta abarrek astinketarik izan dabe, zeanuritarren eta gorbea-zaleetan bizi-bizirik irauten dabenak.

Angoitia'k argitaratukoari Larrakoetxea'k piper-tuta erantzuna. Bataren akuluari besteak eztena. Oraintxe bai *GORBEATARRA*'k zeri eldurik, zer azaldurik eta zeregiñik; bakoitzari berea emon eta illunak argitzerik.

Goi artako lengo barririk eta oraingorik dakianak ba, Prantziskatxo'ri lagun begio, baiña, ziranak ziran bezela ta diranak diran lez neurtuta agertu.

GIBEL andi eta oneko gizona edonon ondo, nasai eta patxadan. Gudaritza egiten Gazteiz'en dogun arantzazutar Yontxu gazte zintzoaren barriak jaso izan dodaz.

Onen eginkizunik gogorrena paparra lotuta ibilibearra. Surrean dindirrik ez eta belarrietan ozpelik nai ez ba'dok... paparra ezeze besterik be otzagandik zaindu bearko dok.

Ondo izan, Yontxu. Txomin Agirre'ren erriko «oillandatuari» agurrak eta gorantzi.

PRAKA zarretan zati barriak ipintzeari edo au lako zerbait egiteari emonik diardue erririk geienetan. Au da, udaletxeen barriztea, naikoa urtetan bertan izan diran gizonen batzueri aginpidea kendurik, besteen batzuei emotea.

Errikideen agintari izatea garrantzizkoa, inportantea dala dirudi eta, piper-ozpindurik ibilli izan dira batzuen-batzuk. Izan gura... ta ezin izan. Ezin izan... ta izan nai.

Erritar bakoitzaren auteskudez aukeratuak izango ez diranarren, zuzentasunez erria zuzentzeko ba' letorkiguz... ongi etorriak esan bearko. Kontuz baiña *TASUN* eta *KERIAKAZ*. Gizonkeririk asko ikusirikoak, gizontasuna gura dau.

BIDE ontatik jarraituz goazen Bilbo'raiño. Amarren bat edo geiago dira emen Madril'go, Galizi'ko, Leon'go, eta bizkaitar Bilbo'ganako ongi-nai eta maitasun sutsuz azaldu diranak. Eskeintzak egiten biotzez aundi, eskuz zabalak. Bilbo'k izango dituan aldakuntzak, izugarriak.

Ikastola barriak, umezaintzak, zarren eta umeen aldeko zer-edo-zer, aize osasuntsua, txokoetan garbi-usaiña; jolas-landak, baratzak eta abar. Baratzak non baiña? Exte-ganeetan ala etxepeetan? Geroak erantzuna.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

AGUR asteroko ontan, 109'grn, alean, lurre'ko ikastola ta lekaiameai ikutu zori onen barean, eta arrezkero minberaturik Lasarte ta Txakolintegi bitartean.

109'grn alea da ain zuzen be, zar eta antziñako ez da oraindik, irakurriz irakurria ausnartzen dakianak, ezin ba aurkitu, lan aretan, lekaiameen aurkako ezer txarrik.

Lan aretan gozoa baiño garratza ugariago izan zala? Daitekena da, eta okerrik egin izan ba'dot, nik uste ezarren, emen naz zuzentzeko gerturik.

Nik argitaratukoagatik, lekaiameak minduta; lekaiameen egifietatik ostera, ikastolaren antolaketan ardurati inarduenak, pipertuta. Eguzkiaren ezten dizdiratsuak zulotu ta argitu begi odaitegia.

Urrutizkiñaren bidez jabetu nintzan Lasarte'ko andratxoan auziaz. Ez-zan andratxoaren abotsa, morroskoarena zan. Ba-da baiña ots egin eustanaren eta lekaiameen artean dabillan bat, ogibide aundiko jaun ikasia, nirekin alkar-izkera egin nai dauana.

Jaun onek baiña euskerarik ez jakin, nik barriz, euskalduna izan bearreko erdeldunakin, dakidan erdera urria egiteko, gogo gitxi. Ez al litzakigu obe ta erosoago (txikiogia ta gaiztotxoia ez ba'nitz) izango, aurrez-aurre alkar ezagutu, zuldarrrik izan ezkeru ustuta osatu...? Aditzera emon dodan zer au gura ezan ba, emen AGUR gogo ta asmo oneko euskaldunai, astero-astero, dituzan orrialdeak eskuzabal eskeintzen. Bialdu kezka eta pozak.

* * *

AZILLAK 18.—Aspaldi onetan utsik asko egin geroztik Anton Deunaren Bilbo'ko txadonean, eleizan nengoan, amabietako mezatan. Notintza andia. Betearen betez ok egiteko zorian eleiza.

Biotzaren sakonean kezka ta artegatasun, auzotik laguntza txikia, ezereza. Izartegia aterpetzat, aurretik zetorkigun mingotsa ta garratza. Eriotza.

Eta eriotzaren gogorkerizko erpe zorrotzetatik iges-egin eta bizirik garanok antxe gihan, apal-apalik, gure kideko izan ziranen aldeko otoietan.

Aldi aretako eginkizun gogor-latzak eta geroztiko urte mordozkaren astunak, batzuk geiago bestetzuk gitxiago, makurtu gaitu pitintxu bat. Ez gaitzezan bada larritu, seme ta alaba zintzo-jatorrik ba-dogu.

Antxe bai ba-zala gazte lerden ederrik, belaunaldi barririk. Gerorako itxaropen andi ta ur garbirik, Jaunaren aurrean otoi ta arrenka, belaunikoturik.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

BEREZKO TA EZBEARREZKO ERIOZAK

Arantzazu'ko Salbide'n Iturrino'tarrenean, senar-
mazte gazteak ezkontzazko lenen emaitzari, lora-
soari bi-iru urtetan itxaron ondoren, jaiobarriari
Jauna'k ondora deitu, eta gotzonen artean ain-
gerutu.

Barririk izango dozuen itxaropenik ez galdu,
eta izan dozuen atsekabe andi ori eroapen andiagoz
jaraitu.

* * *

Artega'n be izan dogu eriotzarekiko barri
illun eta egun baltzik. Bildosolagoiti'ko Jose Joseba,
53 urtetako gizon sasoe onekoa, lanaren nekez ogia
irabaztean zugatza erori, jausi ganera-ta, bat-bateko
eriotzak bizia lapurtu, eta betirako eroan dausku
Bernaola gaztearen aldamenera. Jose ta Bernaola
ezkon-anaiak ziran, biak ezbearez illak.

Barrio-Bernaola'tarren atsekabe mingotzean la-
gun gara, otoietan kide.

* * *

Goazen orain Zornotza'ra, emendik Larra'ra-
Ordulariaren ona ta txarra bi besoen ibillera
azkarregian, motelegian, neurritz ihiltean datza.
Zornotza'ko eleiz-dorrekoak urteokaz zirkiñik ez
dau egin ez atzera lu ez aurrera.

Eleiz-dorreko pitxia, zornotzarrentzat, lotsa-
garri andia. Noiz arte?

* * *

Azilla'ren 25'grrena da. LAUAXETA zana-
ren aldezko meza, Larra'n, amaiketan, eta ni
amarretan bertan.

Ordubete jan bear ba bakarrean, ezangun
barik; eta ba-nebillan ibilliz eguzkiaren epel gozoa
iruntsiz. Alako batean gizonezko bi, atxur bana
eskuan, txiki-txaka lanean bitxabalaren baster ba-
tean.

Ai ene Arantzazu, zelako semea galdu dozun
askorik ez dakizu! Jakin-egarriak zirikatatu bu-
zaitu... ara! emen doakizu:

Zornotza'ko endore, alkate «jaun-jauna» zan
atxurlarietako bat, erritarren onerako lanean inar-
duana. Burdiñezko zulo-estalkia, tapa bat ezin jasota
ari ziran; kutxatillo, kaja txiki bat giltzuz bete-
a lurrean, ondoan. Etxeen baterako urari bidea zabal-
tzen ala galerazoten ete ebillan?

Au bai, au alkatia, arduratua. Zornotzarrok
pozez? Arratia'n negarrik ez.

* * *

Izango doguz nonbaitetik, Lauaxeta'ri egindako
gorazarreatzaz, lan biziagorik, biribilduagorik, ma-
mitsuagorik azalduko dauskuenik. Nik bere baña...
alako ikutu zertxo bat egin gura ba.

Bizkai'ko ainbat erritatik eta Gipuzkoa'ko zein-
batetik, Ondarrabi'tik, Tolosa'tik, Legazpi'tik,
Arrasate'tik, Donosti'tik... Eta Aita Yurre Napa-
rroa'tik, an ginan, Larra'n, amaiketarako.

Bostekoz eta besarkadaz ongi-etorria ta kemena
alkarri eskeindu, bizi-gogoa berobarritu. Eleizako
otoitzetan Gasteiz'en ildakoa gogoratu. Eta oler-
karien olerkirik onenak zaritzea izan genduzan
egikizunik egitekoenak.

Ez genduan beatzakin arririk jo. Loratu ta
burutu, asi eta bukatu (amaitu) anai-arrebazko
giro uts, garbi osotuan.

Antxe izan ziran, guztion arteko, Urkiaga'tar
Estepan «Lauaxeta» zanaren unui-urreak. Eta
anai kutunaren izernordea bein da bider aitatzean,
negarmalkoak diztiraz anai biziaren begietan.

* * *

Gaurkoz, gaurko au amaitzeko, Arrati'ko
ARANTZAK eta OIARTZUNAK'ri:

Labayen Andoni jaun onak agur aundiak eta
gorantzi gizenak, zuontzako, Tolosa'tik ekarri.
Eta nik igorri (bialdu).

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Dirala urteak, 30'en bat edo geitxoago?, zeruak inpernua azpiratu ebalata, arrezkerozko bakealdi ezbitsuan ikusi izan dogu aldakuntzarik, baserri-tarren bizikeran.

Lenago, bein iralla (garoilla) ezkeru urdai' urdazpiko, piper eta sagar, eukanak eukana zorroan artu, eta goizean goiz idak ebatera basora, egun guztirako, bakoitza bere arlorra. Gaua ondo illundurik, neke-neke eginda etxera.

Lengo igande batez, Arteaga'n, Gallaobeti'ra ta Iberretxe alderako bidegurutzeko auzotegian, txarria il bear ba-ta, piztiari ule-bizer eta apatxak erre-kendu egiteko ez lastorik, ez galtzu ta ez beste sugarririk etxeinguruan. Eta igande aretako arrats lenen orduan, bazkal-beroan, gizonezkoak garrasta lakoxe txokorra ezpan tartean eta andrazkoak igitaiak eskuan, an joiazen Olabarri'rako basora bidean.

Gizonak kontukontari, guzur ta abar, erronkatsu. Andrak lantsu, ida-kirten utsez astodun burdia bete eben, eta etxeratu. Onetan baiña etziran eginkizun guztiak amaitu.

Gizonezkoak, arratsberan gaztain-erre-jaia egin bear ebela asmatu, etxean baiña... prakta ta gonazkok agindu. Eta morroskotzarrak burua makurtuz etxe-koandren agindua ixil eta gixajorik, apal-apalik betetu.

Aldi onetan lurgin edo nekazariak ez labe barririk eta ez labepe zarrik ez daukelarik, non egin etxean ez ba'da, surik eta garrik?

Etzetik at, kanpoan egin bear izan eben. Gizonen ondoan auzoko umeak suari inguru. Gaztaiñak txipi, txapla ta punka... Iturria'tik jatsi zana tanbolinteru.

* * *

Joan zaneke urtean, txarri-ilte-aroan, odoloste txapelketea izan genduan zabalkunde ta ots-zarata andirik barik. Gorengo mailla, mailla bardiña lortu eben odolostegille andratxo zur-zurrak, Gamiz'ko BAR ALAIA'ko etxe-koandrea ta Zeberio'ko Leonor izan ziran.

Negu onetako zeiñek obe, norgeiagokoan, aita-turiko emakume zolien ondoan, Zeanuri'tik Ozerin'tar Josu; Dima'ko Emaldi'tik Bernaola gaztaigille gorengo (gizonezkoa); Iurre'ko Olabarri'tik Patxiko adizkidearenak eta Elexabeti'tik Luziano'ren bigarren txarriarenak izango doguz.

Iñork bai besterik?

Emen gara.

* * *

Bilbo'ko salokien batean (dendan) gabon-marraskuillo bakoitxa, andi naiz txiki, bere koipe etxe ta guzti, peseta ta erdi.

On egin dagizuela.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Otzak eta goseak erasota, eta otsoen letagin zorrotzai igesiz, txapel zuridun mendi bizkartsuetatik beraka ta becka artaldeak artzaiñen aurretik, erbarrengo ibar epeletara negua emotera.

Otsoaren izenak dardar artzaiñari, usaiñak ikara basabere otsanari. Jabe on arduratiak al duan alean zainduko dau artaldea larra magalean, landa-bedar gurietan, gauez estalpe ezkutuan.

Gizona baiña, menditarra naiz betarra, nekazaria naiz kaletarra, zeñek zainduko aldi onetako egunetan, gauaren illunaldian eta egunaren argitan! Basa-piztia marroka ta igeska basarri-etxe inguruetara bein jatsi ezkeroko artaldea, izango dau nasaitasunik.

Gizasemeak oso bestera emon bearko ditu negu ta udabarri, uda ta udagoi. Berago ta larriago, errirago ta estuago.

Gizonaren eta gizadiaren etsai eta arriorik zorrotzema ta makurrena gizona bera da, gizonak gara. Gizona gizonen artean itzegiten bildur da, bildur gara. Jaungoikoari eskari berezirik asko ixilka egin bear. Irakurtzea ta idaztea neurtuta doguz eta abesutea mugaturik. Zein pizti gizona gizonarentzat baiño piztiagorik?

Lerro txepel oneik argitaratuko diraneko senitarterik asko, anai-arreba guraso ta seme-alaba, alkarren berora mai ugariari inguru egiñik, urtean dogun etxe-jairik etxekoiena ospaturik izango dira, izango gara.

Maia bete-betean, zer janik ugari; edari gozoak eta gogorak txorro ta iturri. Auzokoaren begitarte saminduari ez-ikus. Eta negar-xotenak ez entzuteko belarriak tapoztuten ba'doguz, izango dogu Gabon ederrik, eta Erregentarteiñoko jai alairik.

Zein izango baiña biotzgogorra ta anker-rra, aldi onetan, etxeko minberatuari bizkarra emoteko? Egungo egun onetan lurraren azalean dogun naste ta alkar ulertu-ezin ontan, gosez eta egarriz diranen oyu ta karraxi makal indargeai entzungor egiteko?

Bakoitxak al dauan neurritz eta eran ez ete doguz gogoan izango gurasoen sukaldetxotik urruti urriñean gudaritzan, espetxetan, laterri-mugetatik at edo kanpoan, ur gaziz andik diranak! Geu-geu lakoak dira or zear bizi ta erdibizi diran guztiak. Jauna'ren semeak, Erriaren arnasa, lurraren zatiak; Belengoa'ren eredu eredugarriak.

Eta nik arratiar koskor onek, zer esango Arratia'tzaz? Sorkaldera begiratu, ta bizi itxaropentsu.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Lanik egin gabe iñoren bizkarretik jan eta nasai biziteari egunetik egunera emonagoak garclako, bear dan neurriz zigortuten ez dituelako edo beste zeren bategaitik, ez dogu egunik, eta erdel-izparretan utsik, lapurketa aundiren baten barririk barik.

Zuzen-zunean, batzutan dirutegira; bes-tetzutan, diru-eskea egiteko aberatskume, gizon gorengo, entzute andiko diranakana joten dabe: lapurtu ta croan, gero, eskaria egin.

Oraintzu, Santo Tomas egunez ain zuzen be, gizona eubatarra ta andrea artaundarra, Bilbo'n ikusketak egin eta eguna ondo ta patxadan emonik, Atxuri'rako bidean joiazan, maite ezti, Bidebarrieta etxarte, kalean zear. Gizona mosuz gorri, ezpaneaz txokorillintia; emaztea pozez eta alairik, an zan lako notintza andiaren joan-etorri tartean, galduko zan bildurrez, senarraren besoari estu loturik.

Bikotearen atzetik, urbil samar, ondotxoan, gizonezko merro-meko bat adi-adi. Alako baten, otoz-otoan, zast!, gizonagaz joian emazteari besapetik eskua sartu ta, arratiarrok esaten dogun lez, zentaillezko tirakadea egin Artaun'go andreari.

Artaun'go alabea, garriz betea baiña, atzez mardula ta indarrez ondo ornitua izanik, lapurrak iges eginbearra izan eban eskuak utsik.

Barri zeatzagorik, ezizenez Gutierrez deritxonak, IZAGIRRE jan-edate etxean, Euba'n.

* * *

Arantz-onantz, oiturazko GABON eta Eguberri-zorionik ugari izango zan, Belen'era gizon egiñik etorri izan zanaren ainbestegarren urteburuan. Millakarik asko ta asko oiturazkoak, otzak, utsak. Mamin eta muñiez beteak bere bai, ez gitxi, samur gozo ta kutunak; etxeko, senitarte ta adizkide alkarren-gandik bananduen artean.

Olakoxcak, azalkeri ta zurikeririk ba-geak egin eta bialdu izan dodaz, astirik eza-gaitik gitxi batzuk. Zeinbat lekutatik ainbat erantzun biotzkor eskuratu bere bai. Andrazkoai, arropuzkerizko erderara zaletasuna, be-tidanik leporatu izan dautsoegu, baiña, emakumeetan be ba-dogu bestetakorik, mutilletan baiño idazle zoliagorik.

Lenengoz aurten, Igorre'ko Abade-etxetik biladutakoa, egiz eta benetan euskera politean egiña jaso izan dot, sakona atsegiña, erro-tsua. Euskaldun zintzo jatorren aldizkari euskalzale AGUR eta oneri beroa emoten dautsagun senitarte gogoan cukala egiña.

Eskerrik asko, zuri, Miren Aintzane orri. Bultz aurreruntz eta indar goratz gure baratzari.

Beste bat be izan dot, Igorre'tik, batzorde batek egiña. Eskutitza au

Urte-barri on!

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

IGORRE'KO GURASOEN EUSKAL-KATEKESIS BATZORDEKOAI

Jaunak: Lenengo ta beñ, eskerrak emotera beartu nozuela esan-bearra dot, cuskera errez, ezin garbiago ta errikoian eginik asteroko aldizkari onetan argitaratu dozuen lanagaitik. Emen doakizue ba, AGUR'en egoetan, sakonenak eta beroenak.

Esan nebana zuzen ez nebala esan, eta egia gitxiago? Emen non doguzan akatsa ta korapilloa. Egia ta argia noren aldetik datorriguzan... zeñek jakin?

Nigaz izan eta «argitaratua» argitaratzeko eskaria egin eustan gizonezko kezkatua, gaur egun dozuen BATZORDE orretakoa danik, edo ez danik, ez dakit; baiña ikastolaren asmatzaille, sortezaille edo antolatzen asi ziranen arteko bat bai beintzat, ziur asko. Betor beraz Salomon jakintsua, eta apalki burumakurtuko naz beraren esanetara. Eta artean erroz sakondua ta besoz zabaldua izan bedi ikastol-areitza, cuskeraren osasunerako ta Erria'ren onerako.

Lekaiameak ogia legepean irabaztearen poza agertu dozuen ezkeru, emen nire crantzuna:

Egunero bost bider, janaritu al ba' lira, eurentzat obe. Eta nik kalterik ez.

Aldi bateko marianistak be gogoan dozucz, irakasle zorrotzak ziranik ezin ukatu, inork. Orain baiña ikastolatza eta euskereari buruz gagozan ezkeruz, zelako babeza ta aterpea izan zituan bertan, euskereak? Euria zancan curitan, eguzkirik ba'zan eguzkitan, eraztun mardikatua nori euskeraz zer entzungo beti atzean, orpoan-orpoan. Geure-geureak ziran itzak esateagaitik, amaikatxo orrialde andi bete nebazan erdera utsean.

Jakintzatik ez letorkio kalterik inori, baiña ikastoletan, lenen-lenen, cuskerari toki. Alaxe izan bedi.

Gogo onezko bultzadaz, bakoitzak alean eta guztiok batean, indar berari biotza betean. Eta nire lengo lanaren bidez sortu izan dodazan kezka, armin-tasun eta naigabeak izan bitez, euskera gaxoarentzat, gatz eta bizigarri.

Onenbestez, begirunez eta itzal andiz, agur ta erdi.

* * *

Arabarrak ogirik ez daukela-ta, Arrati'tik bertara garia eramatea (croatea),

Iau oillorentzat baiño geiagorik egin bere ez da egiten-da, zorakeririk zoroena litzake. «Bermeo'koak eta Santa Ageda'koak» barre-algaraz itotekoa ziur asko. Arratia'n baiña zorakeriak egiten mutilak gara-ta, ez gaitu ezerk arritzen.

Illunbe nekazari-etxea tontorrik tontorenean, basoz inguratuan, Luis zurrokkerrak txarria il lengo batez, Eta txarri-erregarria bertaratu, nondik egin ebalu uste dozu, irakurle?

Areatza'tik. Villaro'ko etxarteetan atetik-ate eskea eta batutako galtzu ta lasto, agotz eta zotz.

Aldapan gora, Uria'ri lagunketan, Uriarte Julen izerdi patsetan.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Ortzak sartu dautsoguz urte barriari, agiñartean dogu. Gure errian zer barririk. Napar langilleak, Naparroa'n, eguneroko alogerari buruz asarrez, oporketan. Arratia'n bere, Iurre'n, orretan. Arrastak (poxpoloak), ogia t'abarren batzuk burua jaso. Tximist-argia bere aguro gorago.

Prantzi'ri, Itali'ri, Olanda'ri... arroliorik ezari, teleikuskiña buru-belarri. Auzoko legorteak etxera egarri. Berebillik ba'dozu, eta gasolinarik ez, arabetarren lagun egin zaitez. Nik ez berebillik ez asto zarririk. Au dala-ta ba... Israel'en aldetik.

Bilbo'n eta erri andietan, egunetan, gurpildun, txirrinkadun dendaburdiak kaleetan ezertxo ere garestitu, karutu ez daitean. Etxekoandreak baiña, urte au garatuko danerako, maillategia edo zurubia bearko eskuan, ezer erosteko.

A. Peli Arantzadi'k Puerto Rico'tik bialduriko barrietan agur bero-beroak eta gorantzi andiak. Norentzat? Arratia'n bizi izan zanean izan zitan ezagun, lagun eta adiskideentzat, batez bere aldi aretan gaztetxoak ziranentzat.

T. Erreka-GATO Arratia'n izan ei-da katakumakeriak egiten, euskaldun jatorrari iseka, gure bizkar irri ta parre egiñarazoten. Noiz itxartuko, Bizkai'ko euskalduna, kokolo-mokolozko lotatik? Non gure zentzuna?

* * *

Udagoienean eta neguaren sarreran lei garratz, izozte andiak, euriteak urri. Euria urri, ura gitxi; alan-ta be, errekatxuak loi ta zikin. Aizea otz, begirakunak zorrotz. Lurrin-laiñoak, laiño astunak estaldu dausku ibar guztia. Eta ez genduan uste, Arrati'ko Agatezale abesbatza erririk-erri ta aterik-ate eskean ikusterik. Baiña, bai, enetxoak. Aurten bere, azkenaldian ekaitzik izaten ez ba'da, ikusi ta entzun al-izango dogu Arrati'ko zekor txiki gogorraren abesti errukior eskalea. Makillatxo eskuan, biotzean zauri, erririk-erri. Samatxuntxurra urratu arte, utsaren truke.

Izango ete dogu aurten bere, errien batean edo bestean, lagun urkoaganako eginketa ona galera-zoko dautsoenik? ALDE EMENDIK esateko aiña gogortasun biotzean daukanik? Erantzuna otsaillaren lauak.

* * *

Udaeta'tar Gaizka. Zumalakarregi, 5. Lau-dio'ko morroskoa dogu. Txakur goseak azurrari letxe daragio euskerea ikasteari, seme-alabakaz batean. Mingaiña azkatu nai dau, eta au egiteko, zoritxarrez, euskaldunik ez errian.

Areta auzotegian bai ba-dirala batenbatzuk, Arrankudiaga'n ugari, oneitakoen arte Gojenola'tar Zipri. Zergatik ez ba, Laudio'ra zoazenean Udaeta Gaizka ikusi, agurtu, eta ekin beragaz batean euskera egiteari?

Emen doakizue Gaizka'ren eskerrik beroenak aurretik.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Ni enaz Arrati'ko endore (alkate), enaz ba agintaria be, eta nire burua kazkarra ta utsa edeslaritzarako, istoriak idazteko.

Zubikarai erririk-erri ibiltariak azken-aspaldi onetan, aste batean eta beste, ango edo emengo erriren bateko edestia biribildu ta azaltzeari emonak, Zeanuri agertu euskun lentxoago batean.

Zeanuri'ri buruzko lana ba, Arrati'an, irakurria izan da, eta geroztik emen izan neban, kereiza gorria lakoxe neskatilla, eskaria egitera etorria. Gazi samar eta gorantz begira eukan bere surtxoa, eta aulan inostan:

Bilbo'tik Zeanuri'rako bidean notin eroa-ekarrian dabiltzazan berebillen albo bakoitzean Arrati'ko erri guztiak agirian, Arantzazu izan ezik. Zubikarai Zeanuri'n izan da, gure erria baiña, onek bere aintzakotzak ez.

Jakin begi bada Zubikarai jaunak, bere lanen begira gagozala Arrati'ko AGUR irakurleok.

Orraintxe doguz txarriak ilbarri, burduntzian naiz porrusaldan sayeskia gozo ta ugari.

* * *

Urte zarraren azken egunetan eta barri onen asieran ainbat euskal-sukaldetan izana naz, eta geien batzuetan au ikisi: egutegi arantzatsuaren tokian AREITZ ORRIDUNA, ERRI-BIDEZKO BATASUNA egitera etorria jaun bakar eta nagusi aundi.

Egunean eguneko orritxoa irakurri izan dauan Erriaren seme zintzoa konturatuko zan, orain ezker, dituan izki (letra) guztiak uguztekoak, esatekoak dirala. Ez dau ba, sama-zintzur urratzaillerik, «intelektualtxuen» asmakizun biurrizko pautsik.

* * *

Lengo egun batez, nire lantokian, zestuar bi (Zestona'koak). Giputz eta napar euskaldunik somatzean barru-barroneko deia izaten dot eta, ezin egon ba, urreratu, agurtu ta itzalditxorik egin barik.

Itzaldia laburra bazen mamitsua, gure aldizkari, egutegi eta Sagartzazu zanari buruz. Une onetan ere gogoan dot euskal-baratza zaintzen eta onduten bere bizitzarik geiena emon ebana, Sagartzazu aitzu-eziña. Eta bere lorratzen jarraitzaille izateko azi ta ezi zituan seme-alabak, eta emaztea.

Emen ba, barrero ere Sagartzazu'tar oi, Bizkai'tik, agur gartsuak eta gorantzi aundi.

* * *

Aleman'ko gudazale amorratuak, lauburua beretzakotu eban. Etxean doguzan «intelektual» izenekoak «intelektualismoagaz» jabetu dirala sinistu, eta arropuztu.

Eta inoan: «H'a 'modan' ipiñi dogu, eta 'akonpañatu' eta fortalezia» emateko «relojua», «renterua», «Roma'koa» esa-

ten ikasi bearko. Erria ta nortasuna barriz, «romantizatu» ta «internazionalitu» egin bear duguz.

Zuri adiskide orri: Relojudun renteru pailasoari aconpanatzen ba'dautsazu, etxekalterik kaltegarriena zaitugu.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Gabon-jaietatik erregenak bitarte eskuarteko diru sorgiñak jan-edanetan eskuagiritan (erregaluetan) eta abarrik askotan samurki ta min andirik gabe eraldi (gastatu) ondoren, urtarrilla ta urtarrillari dagokion aldatz gora gure etxeoandren mingaiñetan.

Aldapan goraka ekitea urtarrillan baiño izan ezean, gaitza ta gaixoa azpiraturik geunkazan orain ezkeroz, eta kukurruku urte guztirako egiñik. Aurtengo aldatza baiña luzea, gogorra ta traketza izango ziur asko, eta bizirik iraun edo izatea gura ba' dogu, bizkarra gogortu bearko.

Arroliorik, petroliorik ezaren aitzakiz geien bat ere, ango eta emengo diruak izan dau gora-berarik eta izen barririk.

Guk egunero eskuartean darabilgun lauerle-kotxo orizka bellegizkeari urgainkari (erderaz, flotante) ipiñi dautsoe. Nik ba, izen barri au egiazkoa ete-zan, guzurrik ete-egoan jakin gurak eraginda, uretara jaurti neban «flotante» bat. Beingoan ta aguro ondoratuz, ito zan. A zan tamala!

* * *

Bein esandako odoloste-leiaketa (zeiñek obeka) egin genduan-ta, negu onetan jateko genduazanak jan doguzala esan bearko. Emen, ba, lenengo ta bigarren irabazleen izenak eta zein erritakoak.

Zeanuri'ko J. Ozerin'enak, Areatza (Villaro) ta Dima bitarteko Ilumbe'n Uria mutilzarrak egiñak eta, Plentzi'n. M. Nekane'k, Kontze'k eta Dolo'k egiñak lenen-irabazle. Ia-ia mailla bardiñeko, gatz-koskortxo piti baten alde besterik ez, Zeberio'n Leonor'ek egiñak eta Txori-Erri'ko M. Atxaerandio'renak. Gamiz'ko Edurne Alaia'koak uts-egin euskun aurtengo txapelketan.

Onak ba, Goirigolzarri'tar Xabierto kutuna Extremadura'n gudaritzan, eta bidezko da ari bialtzea odoloste, buzkantz, txarririk geiena ta arrapatzen dauan dana ta guztia.

Dagiola on Goirigolzarri gure gazte jatorrari. Aomen ospe, txalo ta eskerrik beroenak aitaturiko odolostegilleai.

* * *

Abots barri batek poztu ta bizigarritu ditu gure sukaldeak. Erri-Irratiaren abots euskaldunak. Zurzurrik eta adi-adirik izaten naz entzuten, eguerdian.

Lentxoago batez, gure barriemolleak Basurto'ko gaixotegia, odola emoten dabenak eta arratiarren odol onaren onak gogoan izan zituan. Barriak entzun geroztik amaika korapil eta makiña bat kezka sortu izan ziran, nire kolkoan, eta ni neure buruagaz itaunka asi. Utsagaitik utsean, duan eta gogo onez odola lagun urkoari emotez, egunen batean aspertu ez ete-dira egingo? Orain arte odol ona izandakoa ez-ete-da goizerik gabera gazi-garraztuko, pitean-mitean izaten doguzan kaskabar-ixingor, aize biurri eta ekaitzen erasoz?

Esne on ugaria dauan beiak ez dau makillakadarik bear. Nagusiaren igurtzi bigunak bizkarrean zear, eta aska betea aurrean askoz obe; bai esnerako ta bai edozertako.

* * *

Eta Erri-Irratiari eldurik natorkizuelarik, igarotako urteetan, nork uste gure artean, euskereak tokia izango ebanik irratiari?

Arlo onetan be lanerako gogo ona eta nagirik ez daukanak ba-dau zeregiñik. Barriemolleari lana arindu ta erreztuteko, bateko ta besteko, an eta emen entzun, egin eta ikusten doguzanak bialtzea ondo letorkio, beti lanean ta beti aurreraka diardun adiskide jatorrari.

Aup eta aurrera ba, Euskal-Irratiari arnasa ta indarra emotera.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Orrialde bi leporaiño bete-beterik, gaia gaiaren ganean, Ozkin adiskide miñak egin eta bialduriko eskutitz txairoa jaso izan dot lengo egun batean. Gai bati ikutuka, bestea aizeratu; antziñako ibilteak, egintzak, oraingo jazoerak gogora ekarritz eta giputz-bizkaitarren azken jokoaldia aitatuz egiña.

Ostiko-pelotaren moskorrik ez dot ba izan oraindaiño, zorapena gitxiago. Ba-dau baiña alderdi ta inguru onik, burua argi ta zurtasun piti bat kolkoan izan ezkerero.

Gipuzkoarrak Bizkai'ra datorkuzan bakoitzean, gatz eta bizigarri berezia izaten da Bilbo'ko kaleetan zear. Bizigarria baiña bizigarriagotu egin bear dogu.

Zergaitik ez ba, ango ta emengo gazteak alkarrenganatu, bostekoak luzetu eta bat egiñik, abestu eta jolastu, alkarri zear-begiraka ibilli-bearrean?

Eta zuok, Arrati'ko ostikolari ta inguruetako ostikoketa zaleok, zelako arrera ta ongietorria erbestetik errira datorkiguzan kirolzaleai?

Zelako gizatasuna auzoari, alakoxea auzoak berak ere zuri.

* * *

Iurretarren euskal izatezko nortasuna, bilinbolonka ta noraezean aldatzean beraka joaten dan arri-mokorra letxe doakigu, zulora, zulo illun sakonera.

Gurasoen barru-ar eta ardurarik ezak, gazte askoren arroputzkeriak eta zeinbaten txepel izatearen ondorena dogu, aspalditik datorkigun ondamenti au.

Ba-dogu baiña, baita, gaztetasunez kementsu, buruz argi, eta biotzaren taupadarik armiñenak Erriari opaka ta eskeinka lanean diardun gaztedia. Eta adiñekoetan, zarbarritua, Ubitzaga'ko semea, errotaria izandakoa.

Oromiño'n aspaldiz Ubitzaga'ko (Ubetxa) Aizpuru'tar Lontzi. Len-aldietako kilikilia izan dozu biotzean-eta, zuk alaxe bertsotan idatzi. Gogoan izan dozuz on Ilari jauna, on Permin Goti, Sankristobalak eta Santalutzi. Eta erriak azkatasun osoz aukeratutako Antselmo endorea, alkatea, non itzi dozu?

Abestirako zaletasuna eta belarrietan entzumen zorrotza zendualarik, atzeko putz zaratadunari «duo» egingo zeuskiolo esan zenduan bein. Alkartu gaitzean ba zarrak eta gazteak eta abestu batean «geuria da-ta, geuria da-ta...

Bilbo'ko Matiko-Uribarri inguruetako Sendi Deuna'ren eleizako ateetan, Arrati'ko abesbatzaren Agate Deuna ta Agur Jaunak, txapela kenduta entzun genduzan. Gizontasuna gizonkeriak janik ikusi eben erririk-erriko eske-ibiltean asi baiño len. Zauri zarrak barrizatuta etxeratuko zan, ziur asko, gure gaztedi mardul errukiorra.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Inpernuetakoa naiz zeruetakoa dala, gorririk gorriena naiz zuririk zuriena izan, margo edo kolorezko asmoak batera itxirik, gizadiari zerbait on irakasten eta egiten diardun gizona, naiz taldea, begirunez aintzatua ta txalo-otsez goraldua izan bearrean, azpiratzen, izen txarra emon eta ondantzen, alak eta bost geiago egiten doguz, bakearen «izenezko izatea» edonon eta edozelan parra-parra esan eta adierazo nairik.

Inpernutarra izan naiz zeruetatik jatsia, azpikeriak azpian eta goikeriak goian itxirik, on egiten datorkiguna ongilletzat artu ta biotzez eskertzea da, gure lenengo zeregiña ta eginbearra.

Aspaldiz baiña, eta urterik urtera gogorrago, egintzaren onagaz baiño, egintzea norik eratu ta zuzendua dan, askozaz bere geiago arduratzen gara-ta, ortik datorkiguz ostopoak eta orpoan arantzak.

Arrati'ko Abesbatza, Agate-eskea ta zentzunez atzeratuak diran gixajoak gogoan dodazan une onetan, bide leun eta zabalagorik, on-egintzarako erreztasuna ta buruz atzeratuenganako «goikoen» erruki bete-betea eskatzen dot ba, biotz-biotzez, txoko ontatik.

* * *

Azkenengo AGUR, 123'garren alea argitaratu geroztik, ba-nenbillan ibiliz, igande eberdi batean, zugaitzen soin billostuak betik gora begiratu, amets zarrak ausnartuz eta barriak kolkoratuz.

Alako batean, an non etorzan menditik etxeruntz gazte mardo bi, zatoa sorbaldatik dindiliz eta eskuan AGUR, izena agirian.

Nik, ba, AGUR ikusitakoan agur bategaz agurtu nituan, erantzuntzat beste agur bat artu; adiskidetu giñan, eta eguzki-begian ezarlekuan makurtu.

Astitzu arakatu genduzan AGUR'en orrialdeak, eta lanak sakon aztertu ondoren, Uxola'rena, «Wyszynski kardenala eta Gu» onenentzat aukeratu

Bai, mutillak: Uxola'ren igitaia izan ere zorrotza ta zeatza dogu, lotiak eta txepelak itxartzeko batez ere.

Eta i, arratiar gazte ori, arduratuten ete-az, astegun buruzurian lanetik etxeratu baiño len zurrutean abillan orduetan, gaur egun Erria'n doguzan arazo latzak ondoko lagunakaz eztabaidatzen, bizibarritu eta azalera ateratzen?

* * *

Emen, HACHEGALGARRI loretegiaren neuk batutako udabarriko lore goiztarrak, euskerea pitika zaskeldu eta urkamendira eroateko bidelagun egoki-egokiak: «Amerikanoen polizi jokaera agresiboa zientifikoki examinatua». «Gobernuak representante bat anunziatu zun munduko inhumanitariek kritikatzeko ideakin». «Enplegatu anuntzialariak publikoki kausak seinalatu zitun».

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Lanagoko antxiña baten be salatu izan neban oraingo auzi au, eta ona emen gaur bere lengo oar zarra egitera etorria, ikastola-umeen gurasoai, batez bere zuri ume gazteen ama zaitugun orri.

Andi-mandikerien bat egiten dozulakotzat ala txepetxak lakoxe buru txikia, txikia ta utsa dozulako bialtzen ete dozu umea ikastolara?

Alperrik ariko dira izartegian aizea, trumoi ta tximistak alkar joka, ez dogu izango ezti-euri zaparradarik, eta goikoengandiko laguntzarik ikastolaren on eta osasunerako. Aitaren izerditik, ama zurraren zakeletik eta or-emen doguzan eskuzabalen laguntza bearko orain, gero eta geroago be bai, iraungo ba'dau bizirik.

Ikastola-umerik ez daben guraso batzuk asper turik eta ia-ia ok-egiñik dagoz ikastola-umeen gurasoen erruz, gaztelar barri-lapiko diran umedun amakaitik.

Zeren pozez eta itxaropenez emon neinke ba nik, nere eskupekoa —iñostan andrazko batek— umea ikastolara bialtzen dauan ama orrentzat, goizetik gauera, egunero, erdera utsarentzat ba'ditu bere ao-ezpanak?

Ikastola-umeen guraso ez diranen eskuzabal-tasuna galduko ba'gendu... ama txoriburuena litzake erru. Eta zu, irakurle, berandutu baiño len, alegindu zaitetz barri au zabaltzen.

* * *

Gaueko zortzi ta erdiak ziran, eguastena eta otsaillaren 13'gna. zala uste dot. Bilbo'ko Bidebarrieta etxartetik, Jardines, Sonbrereria, Ascao, Esperantza eta beste etxarteen batzuetatik ibilli nintzan.

Mari-mutil akerrak eta gizonezko gitxi batzuk kaleetan. Edatetxeak utsik. Zar eta gazte gautxori zurrutzaleak eta emakume gangarrak non ete ziran ordu artan? Non guraso etxezaleak eta umetxuak?

Guztiak etxean, danak urrutikuskiñaren aurrean, Yugoslavia'ko landa batera begira. Zarrak eta gazteak atzazalak jaten eta soñekoak urratzen. Umeak izerdi otzean, begiak ustuten ikusi-bearrez. Ama barriz orio, esne ta ganetikoan gorakadakaz oso-osoan aiztuta.

Lenago gazte kementsuen kirola, izandakoa, gaur egun DIRUPORTEA izatera biurtua, egunero doguzan auzirik garratzenak eta astunenak aiztuarazoteko biderik egokiena.

* * *

Zornotza'n oso besterako jazoerea izan zan. Emengo amak, bide arriskutsuetan argi keiñulariak ipiñi dagioezan, erriko agintariai eskaria egitera, ume ta guzti kalera.

Bertan daukeen arratiar gorengo agintariaren erantzuna ez ei zan izan txantxetakoa: Milla bana lauerlekoren zigorra ama bakoitzari.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Zeberio'ko mutilzar kirtenduai buruz zazpi txondor egiteko aiña zer esanik eta barriketarik astindu eta zabaldu izan da Bilbo'ko egunkariren batean. Eta Erri-Irratian barriz, eberdiro eskeintzen dauskuan euskal-atalean txitxiburduntzi, basokoipetsu, kanpomartxo t'abar zer dan eta zelan egiten dan azalpenik izan dogu.

Aurtengo basokoipetsu arratsaldez ba, Argiñano'ko inguruetan San Adrian'en, Zeberio-Arrati'ko mugan suak egin, txistor, arrautz, urdazpiko ta besterik erre; jan, edan eta zeozertxo geiagorik ere izan zan. Zeberio'ko oillar aztal aundien eta Arrati'ko oillanda zarren ordezkarien alkarrikuste ta erabagi barriak artzea.

Gizonezkoen ordezkari Zeberio'tik, K. A.; emakumezkoena Arantzazu'tik A. B. Sanisidroetan, Zeanuri'n, ogeitamar urtetik gora diran emakumeen eta berrogeitik gorako gizonen azokea antolatzeko asmotan dira.

Aitatutako adiñean diran ingurumarietako guztiak esku artu dagikee, batez bere Dima'k, Arantzazu'k, Arteaga'k, Zeberio'k, Orozko'k eta Zeanuri'k. Bedia'n, Lemoa'n, Igorre'n eta Villaro-Areatza'n ez ei-dago neska-mutilzarren arazo gorrik.

Salgai eta ezkondu guraz izango diran andregaiak lore zuria eroan bearke paparrean, eta gizonzkoak gorria.

Gogoan izan ba San Isidro, Zeanuri ta bertan izango dogun azokarik bereziena, berezien artean.

* * *

Jazorikoa ete?...

Tatarrean, motorrean gazte bi ei-etozan Otxandio'tik Dima'rako bidean bera, otzaren otzez soñeko jakeak atzekoz-aurrera jantzirik ekartzela.

Elgabide'n laiñoak itsututa eta otzak gogortuta, bide-erizeko erretenera sartu, basterra jo eta luzeluzerik eta konortea galdurik egozala, bidetxior batetik Indusi'ko eiztari bi une aretan bertaratu. Eta ikusirik ba, jakeen aurrekaldea lurrera begira eta arpegiak gora begiraka, oilloari egiten dautzaguna egin eutsoen, ondo bearrez; eldu burutik, kirrizka ta karrazka jakearen aurrealdera samea biurtu eta, ondo egin bearrez, gazte biri bizia kendu.

* * *

ERIoTZA

Eriotza berez da otza ta baltza, eta askozaz ere otzagoa ta illunagoa etxean izaten dogunean. AGUR onen arpidedun sutsuak diran Etxebarria'tar Kepa'k eta bere emazte M. Karnele'k, Jaunak alan naita, une baltz, illun eta mingotza eroan daroe 9 illabeteko NAIA aingerutxo batirako joan yake-ta.

Emen doakioez gure samin-agurrik sakonenak eta mamitsuenak.

Kepa eta M. Karmen; izan adore ta kemen.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Arrolioak, petrolioak bete dau bere naia. Au da: goraketa egin eta barrero bere noiznai egiteko bideak eta atcak zabalik eukitca lortu.

Nekazariak osterera, esneak ba, arroliaren ikuturik ez dualako, ezin agindu dau etxeko beciaren esneakin. Baserritarrak ba-dau nork agindurik, salneurria zeifiek jarri ta burua makurtu bearrik.

Baserritarra baiña ez dago aiztuta, ez da txokoratua izango. An, Mungi'n, arrizko baserritar-irudi andi bat egiten diardue, erria apaindu eta turiztentzat deia izango dana. Baserritarra ta baserria arrizko naiz burdiñezko oroigailu biurtzen ba'doguz... Prantzi'ko edo nonbaiteko esnea edan bearko, eta prantzez-beiaren aosapaia pentsu gares-tiogogaz gozotu ere bai.

* * *

Erriketa, erri-arazo, politika edo dana dalako izenak eta esan-naiak burua nastu daust, dalako dan ori zer dan atzo baiño gaur gitxiago dakit eta, kezka bizi naz.

Dirala urterik asko ba-zan gure errietan, andi eta txikietan, baso eta mendietako baselizatxoetan bere bai, ezkil-joterik eta kanpaiari ugerra ta lorriña kendu-bearra, garaipenen bat adierazoteko dindiliñak eta danbalanak. Bein bere ez neban entzun izan politikatzaz-koak ziranik.

Aldi aretan Iurre'n ba-gendun apaiztxo «on» bat —erririk askotan be bai, nik uste— zeruetako giltz-zaiña zalakotzat azaltzen zana, alde bateko arimak zeruratzeakin biotzez alegindu eta beste aldekoak, Erroma'ko baimenik eta on-ikusirik bage, exkomulgatu ginduzana. A baiña etzan x x egitca.

Urte mordoskada batetik onuntz osterera, emengo apaiz eta lekaiderik geientzuenak, gotzaiña bera ere barruko egiten dogu, arima gorridun, deabruaren adardun eta bustandun dirala dirudi. Eta ibilliz gabiltzaz eleiza bate-tik bestera nori non zer entzungo, opari-maian beren zeregiña betetan ari danari gogoko ta atsegiñezko ez yakun itzen baten zai eta paparretik bai elduko ez elduko. Oillarkeriz eta arropuzkeriz «geu bakarrik gara kristau eta katoliku, Kristo'ren jarraitzaille zintzo, siñismenean oso» oyu egiten dogu. Bestetarikoak azal utsak eta gezurrez beteak.

Eleiztarrok makalduz goaz. Euskalerrri'ko eleiza ikaratzen asirik dogu, eta Bizkai'koa, egunokaz dardarka.

Eleiz-dorretako gurutz eta aizeorrazak odei baltz astunak estaldu ditu, eleizearen ingurua ekaitz biurriak esitu, erria bildurtu.

Ba-dogu, eleiztarren artean eta euskeran, pipirik eta sitsik. Jaun Altsua'ren zigorra etc?

Euskerearen auzi ta arazoaren barri zeatzik jakin nai dauanak ona emen iru iturri osasungarri: Labayen'en «SASI-NASKI», Lasa'ren lan argia eta oraintxe labetik arako Arenaza'rena.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Gipuzkoa'ko ta Bizkai'ko erriak len zelakoak izan ziran, eta gaur egun nolakoak diran, bakoitzaren kondaira berezia azaltzeari emonak, Zubikarai ondarrutarrak, alperrik eta nagirik bage aguro biribildu eban Arantzazu'ri dagokion edestia, ta gogorik onenakin asetu bere bai, arantzazutar oillandatxo egarberaren egarria.

Gure erri koskor onen len aldiko kondaira garrantzitsuren baten begira izango ziran ziur asko, arantzazutarrak eta arratiarrak, baiña... arrautz txikiak ezin izan ba txita andirik.

Ondarrutar «Erriz-erri»ren luma azkar eztiak betetu dausku bada, kerexa gorri biribillaren eskaria ta irakurleen gogo-gogoko txoko atsegiña.

Oraïn baiña, emen nik untzea ta kakoa. Eskeiñitakoa zorra dalako alde batetik, eta bestetik, bokartaz eta txitxarro ondarrutarrak ok egiñik dagozalarik, Bilbo'n izan zan lengo batez, jarraika nire oinkaden lorratzari, kolkoan kilikili, gogoan zituala ain koipetsu ta gozoak izaten diran Arrati'ko odoloste ta sayeski.

Etzaituguz aiztuta Zubikarai adizkide. Gogoa izango dozunean ba, eup! eta aurrera. Ziztorrik

andienak eta sayeskirik mamintsuenak, sukalde sapaletan dindiliz oraïndikan, Salbide'ko Buztarri'k eta Arantzazugoiti'ko Simon Etxebarri'k. Erbarreanean, Kresen Artabe'k. On dagizula.

GORBEIE'KO txoriak txorik ez aspaldi onetan... «Gorbeatarra» ziur asko edurtzetan.

Baiña ba-dau ordezkua, gazte zoli auzokoa, Emaldi'tar Karmele, Eleizondo'koa.

Ez da buruz motela, ibilli oiñakaz dabil. Eta dan lakoxea azaldu dausku, nor dan gure Gontzal Mendibil.

Karmele'ri indar emoille, Xabier txiki Mungi'koa. Ez da bururik bakoa gazte asko lakoa. Alkarizketak eratuten bere biziko gatza ta kakoa.

Jo dagizue ba sayets batetik naiz bestetik, biotz-mamiñean lo-zorroan dogun arra itxartu arte, euskerearen onerako ta onagaitik.

ERRI-IRRATIAK eberdiro eskeintzen dauskun euskal saillari buruz, il onetako bigarren astean, onena zein eta zeñena, onenka bat egin genduan, iñortxori miñik ez emoteko ustean eta asmotan.

Abestietan onena edo atsegiñena beintzat, bizi-bizia ta gozua, «Oskarbi»k abestutakoa.

Errietako barri-emoilleen euskera egikera, Eloorrio ta erandiotarrarena. Eta barri jakingarrietan, Urkiola'tik bildotsa ta gatzatua jatera goi aretara joateko izan genduan deia.

LANDAJUELA'TAR A.

